



# Pil-pilean

TRUKOLDA

Soraluzeko hilabetekaria  
2023ko martxoa - 396 alea



## ZUHAITZ LANDAKETAK BERTAKOA UGARITZEKO

**ROSA M<sup>o</sup> PINTADO**  
Komunitateen administratzailea  
749 kolegiatu zenbakiduna  
660 969 679 / 943 742 184  
rosapf@telefonica.net



### KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA SORALUZEN



# PIL-PILEAN 396

2023ko martxo

Azaleko argazkiaren egilea:  
Egoitz Unamuno.

## Aurkibidea

- |    |  |   |
|----|--|---|
| 4  | <b>Elkarrizketa</b> Julian eta Martin Ezenarro                   | IRITZIA   |
| 6  | <b>Argazki bidez</b> Zuhaitz landaketak                          | 3 <b>Neuretik</b> Ane Ugalde Iñurrieta <i>Lan merkatuko lorezainak</i>          |
| 8  | <b>Zer berri</b> Aktualitateko albisteak                         | 16 <b>Gutunak</b> Mbaye <i>Xabier Euzkitze</i>                                  |
| 16 | <b>Kirola</b> Errugbia eta hockeya                               | 16 <b>Komiki tira</b>   |
| 19 | <b>Kultura</b> Herriko ondarea online                            | 17 <b>Hausnarketa</b> 34 urteren ondoren, amaitu da euskal presoan sakabanaketa |
| 20 | <b>Sakonean</b> Anartz Mugika Ledo                               | 17 <b>Puntua</b> Olatz Sebal <i>Maurizia ez du inork hill</i>                   |
| 22 | <b>Zerbitzuak</b> Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... |   |



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO  
UDALA**



# Lan merkatuko lorezainak



ANE UGALDE IÑURRIETA

**A**zkenaldian, sarri entzuten ditut lan merkatuaren inguruko mezu kezagarriak. Horien inguruan hausnartzean ordea, egoera paradoxiko hauek ikusten ditut:.

Batetik, talentu falta nabari da, gehienbat big data eta IT moduko profil teknologikoetan eta baita zuzendaritza eta ardurako postuetan ere. Baina txanpon horren bestaldean ikusten dugu gradu eta ziklo teknikoetan apenas dagoela ikasle neskarik, eta emakume askok oraindik kristalezko sabaia aurkitzen dituztela beraien ibilbide profesionaletan.

Bestetik, jubilatuena pentsioak ordaintzeko gero eta diruzaintza arazo handiagoa dago. Afiliazio gehiago behar ditu gizarte segurantzak, baina hara hor, non dauden langile autonomoak. Kostu eta oztopo administratiboek aurre ezin eginik, negozioa utzi eta hilabetez hilabete beraien kopurua jaisten ari dela ikus dezakegu.

Ekintzaitza beste paradoxa bat da. Erakunde publikoetatik asko gorai patzen den aukera da, baina negozio ideia berria duen pertsona errealitatean sartzen denean, izugarriko odisea bizi behar izaten du. Bere ideiarekiko tinkotasuna eta pertseberantzia behin eta berriz kolokan jartzen dioten oztopoak gainditu behar ditu uneoro.

Nahiz eta kontraesan hauek identifikatu, badakit egoera ez dela erraza eta hori guztia ezin dela urte batetik bestera irauli. Baina nire kezka ez dator egoera hori epe motzean zuzendu ezingo dugulako. Kezkatzen nauena da, testuinguru horren aurrean, gure indar eta ahaleginak ez daudela norabide zuzenera bideratuta.

Askotan iruditzen zait, oinarrizko gakoak konpondu gabe alarma mezuak zabaltzeko joera dugula. “Talentu falta dago!” “Gure jubilazioak ordaintzeko adina dirurik ez dago!” Ados, errealitatea hori dela ukatzen ez naiz hasiko. Baina nire lorategian loreak jartzea nahi badut, lurra txukun jarri, ongarrria bota eta egunero ureztatu beharko dut. Albokoari “Loreak behar ditut!” oihukatuz, baina erremediorik jartzen ez badut, belar txarrak ongarritzea besterik ez dut lortuko.

Jarri dezagun bada arreta lortu nahi dugun epe luzerako emaitzetan eta tinko egin dezagun lan oinarrizko gakoetan, kexa eta alarmei muzin eginez. Oraindik oztopo administratibo eta kristalezko sabai larregi ditugu eta gure lorategian!

**GINARRIZKO GAKOAK  
KONPONDU GABE  
ALARMA MEZUAK  
ZABALTZEKO JOERA  
DUGU**

# “Ahal den neurrian, mendi hau salbatu nahi dugu”

---

**TESTUA ETA ARGAZKIA** UBANE MADERA ZANGITU

---

Julian, Kontxi eta Martin Ezenarro anai-arrebek Irukurutzeta Fundazioa osatu dute. "Ahal den neurrian, mendi hau salbatzea" dute helburu. "Ederra delako, sekulako ikuspegi galantak dituelako eta ondasun material eta immaterial handia duelako. Guk Historia asko maite dugu eta Euskal Herria askoz gehiago. Horregatik".

## **Nondik nora dator Irukurutzeta Fundazioa?**

Hasieran, gure helburua jende askok duena zen: lur batzuk erosi, aterpetxe edo bordatxo bat jaso, animalia batzuk eduki eta hantxe egon. Baina jendea pinuak botatzen hasi zenean, orain dela 11-12 urte, guregana etortzen hasi ziren lurak eskaintzen eta aukera ikusi genuen mendi hau, gure neurrian, salbatzeko. Erosi eta erosi hasi ginen. Gero, lehengo 30 hektareak garbitu genituenean, pentsatu genuen bihar-etzi norbaitek zaindu beharko zuela hau guztiau, izan ere, gure atzetik inor ez dator, hona lanera gutxiago. Eta Elgoibarko notarioan testamentua egin genuen Soraluzeke, Elgoibarko eta Bergarako udalen mesedetan.

## **Baina?**

Denbora joan ahala, ikusi genuen konpromiso handia behar zela, udaletan pertsonak aldatzen joaten direla eta ez zegoela ziurtasunik inork zainduko zuenik hau. Eta burutik pasatu zitzaigun fundazio bat muntatzea. Bergarako gestoria bat hartu genuen eta ia bi urtean fundazioa muntatzen ibili ondoren, hiru tribunal pasatu eta onartu zuten.

## **Tribunalak onartu behar du?**

Bai. Guri adostasun osoa eman ziguten, euren esanetan, fundazioaren berezitasunarengatik; txikia delako, mendiarekin lotutakoa, halakorik ez delako inon... ez dakigu zergatik baina baietza eman ziguten. Baietzaz aparte, fundazioa muntatzeko, sarreran, gutxienez, 30.000 euro eman behar dira. Izaera juridikoa du, enpresa bat bezalakoa da. Guk esan genuen ez genuela jarriko dirurik, gure ondasuna baizik. Lurzati handi batzuk eta gure abereak jarri genituen. Lurak eta animaliak baloratzera etorri ziren adituak; 93.000 euroko balorera iritsi zen. Onartu zuten.

## **Hortaz, zein da zuen beharra?**

Laguntza ekonomikoa. Neguan arazoa animaliak mantentzea izaten da, eta aurten udan izan den moduko lehortea tokatuz gero, jangai kontua joan da pikutara. Eta uda ona joan arren ere, neguan ez dago gauza handirik eta lagundu egin behar da, bereziki goikoei.

## **Goikoei?**

Bai. Iriartetik Kirueta bueltara eta Mendotzeraino 13 animalia dauzkagu. Goenetxe eta Urkia Zelai inguruan beste 12. Haiei egunero lagundu behar zaie. Animaliek bakarrik ez dute jaten; gero, nahiz eta animaliek mendia garbitu, norbera ere joan behar da sasi-garbitzeko makinarekin garbitzen. Mendi hori urtean bizpahiru aldiz garbitzen dugu. Basoak ere baditugu eta entresakak ere egiten ditugu. Hau garbitu ezean, ota saila bihurtuko da. Karakatetik hasi eta Irukurutzetaraino, gain guztian ditugu lurak eta San Andresko malda ia osoa. 43 hektarea guztira, (43 futbol zelai). Lur gehienak eta ederrenak Soraluzen daude, San Andres haranean.

## **Zenbateko gastua duzue urtean?**

7.000 bat euro erraz. Gehiena animaliak mantentzeko da, urritik martxoa-maiatzera arte jateko laguntza emateko. 25 zaldi eta asto bat dira, orain kumeak etorriko dira eta horiek denak gehitzen joaten dira. Gu sasi-garbitzeko makinarekin ibiliko gara, baina mendia garbi eduki eta bertan ibili nahi izanez gero, laguntza behar dugu, bazkideak behar ditugu.

## **Zelako laguntza?**

Kide bakoitzak hilean edo urtean kopurutxo bat ipintzen badu, guretzat asko da. Ez dugu ipini gutxienezkorik, bakoitzak nahi duena ipini dezala. Soraluzeke, Elgoibarko, Bergarako eta Azkoitiko 26 enpresatan ere eskatu dugu eta baita Udaletan ere, baina Udalak isil-isilik daude. Demaseko laguntasuna ematen ari dira, adibidez, Elay eta Soraluze. Bestalde, pentsatu beharko dugu, adinean aurrera goazela zeini traspasatu gure Fundazioa. (Fundazioko kide izan nahi duenak: ES. 33 3008 0169 5647 4641 3220; harremanetarako: 646 05 97 16).





# Bertako basoaren alde

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO ETA PLAENTXI ESKOLA

Azken urteotan, Soraluzeko Udalak zein Soraluzeko Baso Biziak elkarteak ahalegin bizian dihardute udalerriko mendietan bertako zuhaitzak landatzeko, lursail publikoetan zein pribatuetan. Soraluzeko Baso Biziak elkarteak, 2020ko azaroan eratu zenetik, 4.278 zuhaitz-landare sartu ditu eta gaur egun 116 bazkide ditu. Udalak ere, 5.000 zuhaitz landare baino gehiago landatu ditu udalarenak diren lursailetan. Azken landaketa joan zen asteburuan egin zuten Azalia baserriko Allibason, Zuhaitz Egunaren harira. Bi aste lehenago, martxoaren 9an, Plaentxi Herri Eskolako umeen ere jardun zuten mendigainean, Lurgaia Fundazioaren gidaritzapean. Herriko mendietan bertako basoak ugartzeko ahaleginak ez du etenik.







# Legealdiaren balorazioa

Oposizioa kritiko da Udal Gobernuaren kudeaketarekin, Udal Gobernuak, berriz, modu positiboan baloratu du egindakoa

Legealdi amaierarako bi hilabete eskas falta denean, 2019tik udal ordezkariak duten hiru alderdi politikoen udal

jardunaren eta kudeaketaren balorazioa egin dute.

Oposizioan dagoen EHBildu koalizioak uste du Soraluze

"gainbeheran" dagoela, Udala "noraezean" dabilela, "Gobernu taldearen lan estiloak" ez diola "erantzun herriak dauzkan erronkei" eta oro har, "alkateak etengabe eta neurritz gain" kokatu duela "bere burua".

Udal Gobernuan dauden EAJ-PNVk eta PSE-EEk, berriz, balantze positiboa egin dute eta Udalaz gairik erakundeekin izandako elkarlana eta hari esker lortutako baliabideak nabarmendu dituzte.

## "8 urte herriaren gainbehera irauli ezinda"

### EH BILDU

"EAJk eta PSE-EEk oso positiboki baloratzen dihardute 2015etik 2023ra egin duten gobernu jarduna. Baina errealitatea beste bat da. Urte guzti hauetan zehar egindakoarekin Gobernu Taldeak ezin izan du Soraluzek bizi duen gainbehera irauli. Erronka ez da makala, baina ebidentea da egindakoak ez duela funtzionatu. Eta funtzionatzen ez badu ahalik eta azkarren aldaketak egitea onena. Urte guzti hauetan, notizia eta argazki ugari ikusi izan ditugu guztiok. Baina helburu argirik gabeko ekimenetan katramilatuta ibili direla deritzogu. Noraez horren ondorioz, herriarentzat estrategikoak diren aktuziorik ez da abiatu. Eta Soraluzek bizi duen egoera iraultzeko, garrantzitsua da ekimen oro norabide argi batekin egitea. Gobernu taldearen lan estiloak ere ez dio erantzun herriak dauzkan erronkei; kudeaketa oso hierarkikoa izan da,



EH Bildu koalizioko zinegotziak.

alkateak etengabe eta neurritz gain kokatu du bere burua gobernuko beste kideen zein oposizioaren zinegotzien gainetik. Eredua hori ez da Soraluzek behar duena. Egoera honetan ez zaigu erreza izan EHBilduko kideei oposizio lana. Zer kritikatu ugari izan arren, etengabe ahaleginak gara gure ekarpenak modu eraikitzailean bideratzen. Ondorioz, askotan jaso izan ditugu EAJ eta batez ere PSE-EEko bozeramaleen ahotik esker oneko hitzak. Baina borondate onenarekin jardun arren, oposizioetik

ezinezkoa izan zaigu udal gestioan nahiko gurekin moduan eragitea. Hala ere, indarberrituta geroz maiztasun handiagoz udal hauteskundeetara. Soraluze bizigarriagoa eraikitzeko ilusioz eta gogoz dauden herritarrekin osatu dugun lantalde berria, alderdikarien gainetik gure herriaren alde modu kooperatibo eta kolaboratiboan jarduteko gogoz dagoen lantaldea. Ea herritar guztion artean asmatzen dugun Soraluzek behar duen dinamika positiboa eraikitzen. Piztu Soraluze!"



# "Balantze positiboa argi eta garbi"

## UDAL GOBERNUA

"Legealdia bukatu da eta balantzea egitea tokatzen da eta Udal Gobernuak osatzen dugunondako balantzea positiboa da, argi eta garbi. COVIDak markatutako legealdi atipikoa izan da honako hau; horrek eguneroko udal kudeaketa asko zaildu zuen. Baina zailtasunei eta beharrei aurre egiteko gai izan ginen, batik bat, instituzioen eta herritarren kolaborazioari esker, eta, indarberrituta irten ginen Soraluzeren etorkizunari itxaropenez eta ilusioz aurre eginez.

Aurreko legealdian eskuratutako eskarmentua oinarri izanda, lau urte hauetan Udalaz gairik erakundeekin (Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia...) akordioak eta proiektuak topatzeko lan egin da. Garrantzitsua da nabarmentzea egindako gestioei esker, azken lau urteotan eskuratu diren baliabide ekonomikoak 12.000.000 eurotik gorakoak direla, dirulaguntzak, laguntzak edo hitzartutako proiektuak aintzat hartuta.

Baliabide ekonomiko horiei esker, proiektuak planifikatu eta gauzatu ahal izan ditugu, bakarka ezingo genituzkeenak egin, nahikoa gaitasun ekonomiko ez izateagatik. Langabezia-tasa altua dagoela jakinda, langabeen formazioaren aldeko apustua egin da, Kalebarren 8an orientazio soziolaborala eta gizarteratze zerbitzuak eskainiko dituen hurbiltasun



Udal Gobernuako zinegotziak (EAJ-PNV eta PSE-EE) osoko bilkuren aretoan.

bulegoa egokituz. Lantegi eskola bat ere abiarazi da, gure gazteak formatzeko, haiek ofizio bat ikas dezaten, lan merkatuan sartzeko aukera gehiago izan eta bizi-proiektu autonomoa garatzeko aukera gehiago izan ditzaten. Herria birgaitzea legealdi honetako beste ardatzetako bat izan da; legealdi honetan bultzatu da Ezozibidea auzoaren birgaitze osoa, SAPA esparruarena, Pascual Churrucarena eta Gabolatseko zubiarena.

"UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN AKORDIOAK TOPATZEKO LAN EGIN DA"

"ESKURATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK 12.000.000 EUROTIK GORAKOAK DIRA"

Halaber, herritarrei zerbitzu hobea emateko eta bizi-kalitatea hobetzeko herrian egokitu diren kirol, kultur eta aisialdirako ekipamendu berriak balioan jarri nahi ditugu. Ahaztu barik energia berriagarrien eta udal eraikinetako energia eraginkortasunaren alde egindako apustu garbia.

Proiektu horiek gehienak udalbatza osatzen dugun alderdi politiko guztien artean adostu dira. Soraluzek dituen beharren diagnostikoa ere hala adostu da, Debabarrena eskualdea Lehentasunezko Arreta Eremu izendatzeko Eusko Legebiltzarrean sortutako PONENTZIAN ezagutzera eman zena.

Azkenik, eskerrak helarazi nahiko genizkieke udal langileei zein herritarrei orokorrean, euren lan, ekarpen eta kolaboraziorik gabe, dena askoz ere konplikatua goa baiiltzateke. Eskerrik asko eta agur bat!"



Dozenaka herritarrek babestuta aurkeztu zuen hautagaitza EH Bilduk.

## Soraluze "pizteko" gogoz dator EHBildu

Martxoaren 25ean aurkeztu zuen Udal hauteskundeetarako zerrenda, Plaza Berrian, dozenaka herritarrek babestuta

Indartsu ekin dio Soraluzeke EH Bilduk maiatzaren 28an egingo diren Udal hauteskundeetarako bideari. Dagoeneko aurkeztu du hautagaien zerrenda osoa, *Soraluze pizteko gogoz*

datorrena. Unai Larreategi Azurmendi da alkategaia eta hari laguntzen, "hainbat arlotan adituak eta arituak" diren herritarrak izango dira, "aurpegi berriak" zein dagoeneko "eskarmentua"

dutenak. Zerrenda aurkezteko ekitaldi publikoa egin zuten martxoaren 25ean, Plaza Berrian, dozenaka herritarrek babestuta. *Piztu Soraluze* lemarekin batera, "ilusioa", "geroa", "aldaketa", "aniztasuna", "herri bizigarria" eta "alkarrekin" kontzeptuak azpimarratu zituen EH Bilduk datozen egunetan aurkeztuko duen programaren ezaugarri nagusi moduan.

### Hautagai zerrenda

Honako herritarrek osatu dute EH Bilduren hautagaitza:

- 1.- Unai Larreategi Azurmendi
- 2.- Ana Rosa Maiztegi Gorostidi
- 3.- Maite Quintanilla Lete
- 4.- Iker Uzin Larrañaga
- 5.- Ione Alberdi Alvarez
- 6.- Ainara Osoro Txurruka
- 7.- Martin Azkarate Uzin
- 8.- Esther Cruz Iglesias
- 9.- Juan Fernandez Conde
- 10.- Iraultz Arluziaga Ariznabarreta
- 11.- Ane Ugalde Iñurrieta

### Ordezkoak:


- 1.- Jondar Plata Gomez
- 2.- Elena Garaikoetxea Epelde
- 3.- Jose Luis Arizaga Urizar

## EAJren alkategaiak Debabarrenean

Martxoaren 26an, EAJ-PNVk Debabarreneneko alkategaiak aurkeztu zituen Deban, Eider Mendoza diputatu nagusi izateko hautagaia buru zutela. Besteak beste, Iker Aldazabal Soraluzeke alkategaiak herriko eremu urbanistiko degradatuak berritzeko proposamenak aurkeztu zituen, arreta herriaren berroneratzean jarrita.







Gabolatseko zubi berriarendako proposatu duten egitasmoa.

## Zutabe bako zubia Gabolatsen

Martxoaren hasieran aurkeztu zuten Gabolatseko zubia ordezkatu duen zubia URA Agentziako eta Soraluzeko Udaleko ordezkariak

Iaz, Uraren Euskal Agentziak (URA) Gabolatseko zubia zaharbertzeko proiektua idazteko konpromisoa hartu zuen, gaia lantzeko, Soraluzeko Udalarekin bilera egin ondoren. Oraingo zubiak bi zutabe ditu eta

horiek presa efektua egiten dute, ibaiaren ibilgua baldintzatuz. Uholde arriskuen aurka URA Agentzia egiten ari den lanketaren baitan, neurrietako bat izango da Gabolatsen zubi berria eraikitzea.

### Ibilgailuak eta oinezkoak

Martxo hasieran, URAk zubi berrirako egitasmo proposamena aurkeztu zuen. Haren arabera, zubia 5 metro zabal izango da (oraingoak 3 metro ditu), horietatik 3 metro izango dira ibilgailuen pasorako eta beste biak oinezkoendako. Bi esparruak arku metaliko batek bananduko ditu. Arkuak ez du eragotziko oinezkoen eta ibilgailuen eremuen arteko ikusmena eta bere itxura metalikoa herriaren izatera industrialarekin bat etorriko dela azaldu zuten.

Zubiaren plataformari dagokionez, berriz, airean joango da ibaiaren alde batetik bestera, hau da, ez du ibaian zutaberik izango.

### Bi hilabete idazteko

URA Agentziako ordezkariak azaldu zuten, bi hilabete beharko dituzte zubi berriaren proiektua idazteko. Ondoren, hura informazio publikoan jarri eta tramite horiek bukatu ondoren, zubi zaharra eraitsi eta berria eraikitzen hasiko dira. "Epeak betetzen badira, aurten lizitatu ahalko litzateke".

## Zuzendaritza berria Itzaropenan

Itzaropena erretiratuen elkarteak zuzendaritza berri du. Oraingo kideak honakoak dira: Amaia L., Rafa V., Celso D., Miren A., Mertxe C., Rosa Z., Marian B., Jose Ignacio B. eta Jose Ramon F. Taldearen helburua da "jubilatua pozik izatea eta jendeak ekintza desberdinetan parte hartzea". Orain arteko ekitaldiez gain, berriak egiteko asmoa ere badute.



# PUBLIZITATEA

**ELIZPE HORTZ KLINIKA**

Zure gertuko hortz klinika, punta-punta teknologian lan egiten dugu. Cad Cam sisteme berritzaile arabizari dugu.

Elizburu, 3 behea  
SORALUZE  
Tel.: 943 75 25 67  
Mug.: 943 75 25 79  
e-mail: elizpe@elgimail.com

Ordelegia:  
Astelehenetik ostiralera  
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



**Txoko**

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburguenak, ogitartekoak, ogitartekoak, natiboak, pizzaak, gozaria...  
Etxarguak egiten dira  
Tel. 943 75 17 00



**MABEL NEWPAINDEGIA**

- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma

Errabial 1  
Tel.: 943 75 14 89



**Kontulan**

Aholkularitza fiskala - Kontabilitatea  
Lan-aholkularitza - Zerbitzu juridikoa  
Ticket bai - Outsourcing - Aseguruak

www.kontulan.com

**KLB6**

Kalebarren 6  
943 57 74 26  
Makina eta makinen merkataritza

BSB *Paño Jauna* | **ISOLID** | **AB**  
VERO MODA | **ESONICE** | new balance



**Armendi Jatetxea**

Sukalde tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburuetan menu berezia  
Karta  
Burduntzian erretako bildotsa  
Etxeko triboak  
Soufflés

Tel. 943 75 10 02



**MENDIZABAL okindegia**

Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbatak eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99

Ogia - Prentsa - Gosaririk



**KM design**

Kira - Muntakak  
943 76 09 85

Disainu eta Fabrikazio lanak

- Sukaldeak
- Horma-ornamenduak
- Logelak
- Zonak
- Aloak...

Arotzeria lanak oro har  
Instalazioak

karumuntakak@yahoo.es  
www.kmdesign.es

Pol. Amilaga 3  
BERGARA

**ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA**

arrieta dekorazioak inguruetan

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30



**Griado**  
Fruitategia Urdaiztegia

Etxarguak Whatsapppe  
Etxerako zerbitzua  
Berriak & delicatessen

Astelehenetik ostiralera:  
09:00-13:00 eta 17:00-20:00  
Larunbatak: 09:00-13:00

629 918 536



**Soraluze Motor**

Mug. 676 556 817 (Asier) Mendiola ind. 15  
Tel. 943 75 21 56 Soraluze



**Hortz klinika**

Errabial 1  
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso  
Mediku Estomatologo  
K.Z. 48.000.599

30 urte baino gehiagoko esperientzia

Katia Guzmán  
Odontologoa  
K.Z. 48.001.541

odontologia, protesiak, ortodontzia,  
odontopediatria, ingurumenak, estetika...  
Zerbitzu radiologiko orokorra (3D):  
ekianeria, orto eta tele.



**FOGASLER**  
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)  
fogasleriturgintza@gmail.com



**IZXGUTIRRE**  
Igeltzeritza

Erakin berriak • Kalitatezko emaitza  
Erreforma • Era gutxiatoko igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913




Bidelagun euskaltzaletasunean

**SOMABE** Supporting your projects

**aras**

**ALBISUA** S.L.

**laibi** ELECTRICIDAD



# Haizeak harrotuta Debabarreanean

**dkt**  
Debabarreko  
Komunikazio  
Taldea

Green Capital Energy enpresak Karakate-Irurutzeta gainean parke eolikoa egiteko proiektua aurkeztu du, eta horrekin batera, orain dela 20 urteko mamuak berpiztu dira Elgoibarren eta Soroluzen. Baina horrez gain, Debabarreneko beste mendi batzuk ere parke eolikoak jartzeko leku optimo gisa izendatu dituzte, eta horrek guztiak haizeak harrotu ditu Debabarrenean. Orriotan aurkituko duzue Debabarrenerako parke eolikoari buruzko informazioa.



# Eolikoetarako gune optimoak

SORALUZEN, EIBARREN, MENDARON, DEBAN, ITZIARREN ETA MUTRIKUN DAUDE

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS) ari da tramitatzen. Hasierako dokumentua idatzita eta ikusgai dago, Eusko Jaurlaritzaren [euskadi.eus](http://euskadi.eus) atarian.

Energien Plan Sektorialak zazpi energia berriztagarri ditu aztergai: eguzki-energia fotovoltaikoa, eguzki-energia termikoa, energia eolikoa, energia ozeanikoa, biomasaren energia, energia geotermikoa eta energia mini-hidraulikoa. Besteak beste, energia mota horiek sortzeko eta lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoko eremu optimoak markatzen ditu eta aproposak ez diren eremuak baztertu.

Plan Sektorialaren tramitazio prozesuan erakundeek, elkar teek, eragileek... zuzenketak zein proposamenak egin dituzte, beraz, litekeena da aldaketak izatea behin betiko LPS-ak. Eusko Jaurlaritzak udarako nahi du onartu Energia Berriztagarrien LPSa eta behin betiko plana hura izango da.

## **%21etik %16,1 eolikoetatik**

Eusko Jaurlaritzaren hasierako LPSaren arabera, 2030erako, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian kontsumitzen den energiaren %21 iturri berriztagarrietatik sortzea

lortu nahi dute, %16 bertan sortuta eta %5 kanpotik ekarrita.

Bertan sortutako energia berriztagarriari dagokionez, berriz, energia eolikoaren aldeko apustua egiten du Jaurlaritzak. Gaur egun, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, 153 MW produzitzen dira dorre eoliko bidez eta helburua da 783 MW produzitzea. Hau da, zazpi aldiz biderkatzen du zentral eoliko bidez ekoitzi nahi den energia berriztagarri kopurua.

## **Zuzenean aplikatzekoak**

Hori ahalbidetu eta bultzatzeko, Energia Berriztagarrien LPSaren aurrerapenak honakoa dio: "Haize-aprobetxamenduari lotutako eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak 1. mailako eremu optimo garbiak eta 2. mailako eremu optimo garbiak izenekoetan ezartzea erabilera edo jarduera onargarri-

**Berriztagarrien  
LPSaren aurrerapenak  
zortzi gune optimo  
bereizi ditu  
Debabarrenean**

tzat jotzen da, Lurralde Plan Sektorial hau indarrean sartzen denetik zuzenean aplikatzeko, eta ez da beharrezkoa izango inolako hirigintza-plangintzaren bidez garatzea, lurzorua sailkapena eta kalifikazioa edozein izanik ere; hala ere, aplikagarri den sektore-araudiaren arabera, beharrezkoak diren gainerako baime-nak, lizentziak eta onarpenak beharko dira".

Gune optimoei dagokienez, lehen mailakoak dira urtean 3.350 orduz funtzionatzeko ahalmena izango luketen lekuak; bigarren mailakoetan, berriz, urtean 2.650 ordu baino gehiagoan egon ahal-ko lirakeke martxan dorre eolikoak.

## **Debabarrenean, zortzi**

LPSak, 33 eremutan, 139 lerrokada bereizi ditu zentral eolikoak egiteko gune optimo modura. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 33 esparru horietatik zortzi Debabarrenean daude, guztiak ere mendietan.

## **Soraluze-Elgoibar**

Debabarrenean, oraingoan, zentral eoliko bat eraikitzeko eskaera bakarra dago aurkeztuta. Green Capital enpresak (Capital Energy multinazionala) aurkeztu zuen

**Argitaratzailea:** Debabarreneko Komunikazio Taldea

**Erredakzioa:** Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

**Diseinua eta maketazioa:** Ekhi Belar

**Azaleko irudia:** Pexels

**Tirada:** 18.425 ale







Karakate. Argazkia: Egoitz Unamuno.

egitasmoa Soraluzeko zein Elgoibarko udaletan, 2022ko otsailean.

Aurreproiektuaren arabera, bi aerosorgailu ezarriko litzukete Karakatetik Gizaburuagara bitartean. Dorre bakoitza 101 metro altu izango litzateke eta barruan, eskailerak, igogailua eta plataformak izango litzuzke. Hegal bakoitza, berriz, 77 metro luze izango litzateke. Beraz, hegal eta guzti, aerosorgailu bakoitzak 180 metro inguruko garaiera izango luke.

Konparatze aldera, dorreak Soraluzeko elizdorrearen garaieraren halako lau neurtuko luke, Elgoibarko Mintxeta kirolgunea baino luzeagoa izango litzateke edo Bilboko Iberdrola dorrea baino handiagoa (165 metro ditu hark).

Dorreen oinarriek, berriz, 26 metroko diametroa izango luke eta hiru metroko sakonera, lurpean. Potentziari dagokionez, aerosorgailu bakoitzak, batzate beste, 4.800 kw-eko potentzia sortuko luke.

### Elgoibarko azpiestaziora

Aurreproiektuan zehazten dutenez, zentralak sortzen duen energia Elgoibarko azpiestazio elektrikora eroango lukete, Azkueko zentralera (jabea Iberdrola da), handik sare orokorrera konektatzeko. Energia, lurpean sartutako kableen bitartez bideratuko lu-

kete Elgoibarko azpiestaziora, 4,79 kilometroko ibilbidean zehar.

Proiektuak, guztira, 10.762.915 euroko aurrekontua izango luke.

Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Jasangarritasunerako Departamenduak abuztuaren 2an jarri zuen ikusgai Green Capital Development 135 SLU enpresak Karakateko parke eolikoa eraikitzeko aurkeztu duen hasierako ingurumen txostena.

### "Uztargarria eta moderatua"

Bertan, enpresak zehazten du bere ikuspuntutik proiektuak zer nolako inpaktua eragingo lukeen ingurumenean eta inpaktu hori minimizatzeke zein neurri hartuko litzuzkeen. Enpresaren iritziz, proiektuak ingurumenean izango lukeen eragina "uztargarria eta moderatua" izango litzateke eta ondorioz, ez du ikusten arrazoirik proiektua geldiarazteko.

Ingurumen txostena argitaratu arte, Green Capitalek ezagutarazi gabe zituen proiektuaren gaineko hainbat informazio; esaterako, ingurumen txostenean argitu zuen nola pentsatzen dituzten garraiatzea zentral eolikoa



Jaungoikomendi. Argazkia: Xangarin (mendiak.eus)



Kalamua mendian Markina-Xemeini dagokion gunea ezarri dute eolikoak jartzeko gune optimo bezala. Argazkia: Ekhi Belar.

eraikitzeke pieza erraldoiak: Elosutik garraiatuko lituzkete, horretarako, mendi gainean zehar 5 metro zabal eta 8 kilometro pasatxo lituzkeen errepidea eraikiz, aerosorgailuak ezarriko lituzketen kokalekuraino. Horrekin batera, aurreproiektuan aipatzen ez zuen “dorre meteorologikoa” eraikitzeke asmoa ere azaltzen da ingurumen txostenean. Hirugarren dorre hori 101 metro garai izango litzateke eta txostenean diotenez, eraikitzeke, “gutxienez” 520 m<sup>2</sup>-ko plataforma eraiki behar-ko lukete. Bestalde, txostenak dorre eolikoak muntatzeko era-

biltzea aurreikusten duten espazioa ere zehaztu zuen: 3.000 m<sup>2</sup>.

Egitasmoaren prozedurari dagokionez, berriz, Green Capiletik esan dute espedientea tramitatzeko segitzen dutela eta zaila dela behin betiko proiektuaren gaineko data zehatzki ematea.

#### **Beste kokagune bat**

Zentral eoliko bat eraikitzeke egitasmoa aurkeztuta izan arren, Eusko Jaurlaritzaren LPSaren aurrerapenaren arabera, Soraluze-Bergara inguruan, eremu bakarra dago kontsideratuta aerosorgai-

luak jartzeko eremu optimo modura: Txurruka gaineko Koskorreta-Ozeta Irukurutzetatik Osintxu aldera jaisten den hegi handian dago kokatuta esparrua, Soraluze Atsedentxaboleta esparru ingurua modura ezaguna den gunea. 625 bat metroko esparrua.

Karakate-Irukurtzeta lerrokadura, berriz, gune baztertu modura azaltzen da LPSaren aurrerapenean, baina aldi berean, lerrokadura hori ez da osorik baztertzen.

#### **Eibarren, bi**

Bestalde, Soraluze ez ezik, berriztagarrien LPSak eolikotarako beste zazpi kokagune optimo bereizi ditu Debabarrenean, bigarren mailako gune optimoak, guztiak ere.

Horietako bi Eibarren edo Eibar inguruan daude: bata, Akondian (Arrikurutz) eta bestea, Markina-Xemeinekin muga egiten duen Kalamua mendian. Bien artean, kilometro eta erdiko luzera hartuko lukete.

#### **Mendaro-Deba-Itziar, gehien**

Itziar-Deba-Mendaro eremuan daude, berriz, gune optimo kopururik handienak identifikatuta, bost: Urkamendi-Arriolak (Itziar, Deba), Otaerre-Larraskanda (Deba, Mendaro, Azkoitia, Izarraitzen); Otaerre (Txoriskita)-Elordi-Urkullu (Mendaro, Deba, Izarraitzen) eta Andutz-Txobillar (Itziar, Deba). Guztira, lau kilometro pasa.

#### **Mutrikun, sei gune lerratuta**

Azkenik, Mutrikun beste lerrokadura bat markatu dute gune optimo modura. Ez da lerrokadura jarraia, baizik eta guztira, lau kilometro pasako luzera hartuko luketen sei gune daude markatuta; bat izan ezik gainerako guztiak Jaungoikomendi eremuan daude kokatuta.

# Eragile politikoaren iritzia

ZER IRUDITZEN ZAIZUE DEBABARRENEAN PARKE EOLIKOAK JARTZEA?

Ordezkarari politikoek zeresana izango dute Energia Berriztagarri-en Lurralde Plan Sektorialaren tramitazioan eta, horregatik, gaur egun Debabarrenean ordezkaritza duten alderdi, plataforma edota eragileekin egon nahi izan dugu gaiaren gainean euren iritzia zein den jakiteko. PP alderdiaren kasuan, ostera, Ermuako PP-ren izenean erantzun diote geure galderari.



Krisi energetiko batean murgilduta gaude. Erregai fosiletan errotutako gure energia-sistemaren ondorioz pairatzen ari garen klima-aldaketa areagotzen ari da.

Arazo honi aurre egiteko, tresna nagusia trantsizio energetikoa da, hau da, erregai fosiletan errotutako sistema energetiko bate-

tik emisio gutxiko edo karbono-emisiorik gabeko batera aldatzea, iturri berriztagarrietan oinarrituta.

Denok bat gatoz energia berriztagarrien aldeko apustua egin behar dela, baina modu zuhur, kontrolatu eta antolatuan, horrek ez baitu esan nahi horren kostua hutsa denik. Energia eolikoa batzuentzat elektrizitatea sortzeko modurik garbiena, berriztagarria eta kutsadurarik gabekoa bada ere, ezin dugu ahaztu ingurumenean eta biodibertsitatean duen eragin ezkorra.

Horregatik guztiagatik, gure eskualdean parke eoliko bat jartzeko aukeraren aurrean, ezer baino lehen, azterketa zorrotz bat egin beharko genuke, irizpide teknikoak, ingurumenekoak, sozialak eta ekonomikoak kontuan hartuta.

Baina ez dezagun ahaztu planetaren etorkizuna gure esku dagoela, eta, beraz, has gaitezen kontsumo-ohiturak aldatzen: energia-kontsumoa murriztuz, kontsumo iraunkorragoak sustatuz eta ditugun baliabideak modu eraginkorrean erabiliz.

ehbildu

Garrantzitsua da parke eolikoaren eraginaz hitz egin aurretik larrialdi klimatikoaz eta energiaren krisiaz hitz egitea. Alde batetik, erregai fosilekiko dugun menpekotasuna dago, eta bestetik, honek larrialdi klimatikoan duen eragina. Beraz, ezinbestekoa da erabat lotuta dauden bi gaiak heltzea eta Euskal Herrian ere trantsizio ener-

getikoa lehentasunez hartzea. Horretarako, behar dugun energia kontsumoa zehaztuko duen eta hau lortzeko oinarriak jarriko dituen Energia Estrategia diseinatu behar da. Beraz, Lurralde planifikazioak eskutik behar du energia berriztagarrietan oinarritutako planifikazio energetiko bat. Energia berriztagarrien hedapen ordenatu baterako planifikazioa da behar duguna, eta hau da LPS berriak duen gabezia nagusia. Gure ustez, autosufizientzia ahalik eta eskalarik txikienetan bilatu behar da, eta horlortu ezin dena goragoko eskaletan

bilatu, beti maila lokaleko autosufizientzia osatzeko helburuarekin. Eta betiere aintzat hartuz arrazoi ezberdinengatik salbuetsi eta babestu beharreko eremuak. Trantsizio energetikoak interes publikoari erantzun behar dio, eta gure ustez, ezinbestez aipatutako baldintzei. Beraz, parke eolikoaren beharra eta kokapenaz hitz egin aurretik, ezinbestekoa da Euskal Herrian dugun Energia beharra aztertzea eta honi bide emateko herritarren batera prozesu sakonak egitea, herritarren oniritzia ezinbestekoa delako estrategia honetan.





LPS batek, izan orain arte indarrean dagoen eolikoena edo lantzen ari den berriztagarrienak, berriztagarri hori non ezin den garatu uzten du garbien; eta, garatzekotan, garatzeko balizko lekuak zehazten ditu. Planak aipatzen du balizko eremu horiek zehaztasun gehiagoz lantzen dituela eremu bakoitzera-ko proiektua egiten denean. Proiek-

tuak berak zehaztatuko ditu hai-zerrotak non jarriko diren eta proiektuak lurrari sortuko dizkion morrontzak. Indarrean dagoen Planaren barruan planteatzen diren parke batzuk bertan behera gertatzen ari direla ikusten ari gara, ingurumen edo arategiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzea ezinezkoa gertatzen zaielako edo garapena bideragarria ez delako. Energia berriztagarriak ezinbestekotzat jotzen baditugu eta trantsizio energetikoa egin behar bada, erabakiak hartu eta neurriak ezarri behar dira, ahalik inpaktu txi-

kiena sortuko duten berriztagarriak bultzatzeko. Ezin dugu berriztagarrien alde egon eta proiektuak zehaztasunez ezagutu gabe, alar- ma sortzen hasi edo aurka jarri. Gure industriak ezinbestekoa du aztarnarik gabeko energia ekoiztea. Eta gure ongizatea industrian oinarrituta dago. Horrek ezinbestean berriztagarriak jartzera eraman behar gaitu. Gainontzean, berriztagarria bada ere, kanpotik ekarri beharko dugu, kanpokoek ezartzen diguten prezioan. Burujabetza bada gure helburua, energian ere, gure energia ekoizten hasi behar dugu.



Azkenaldian bizi dugun energia-krisiak areagotu egin du tokiko energia berriztagarriekiko interesa, trantsizio energetikoa gauzatzeko premia agerian utzi baitu. Baina trantsizio hori egiteko modu asko daude. Trantsizioa jasagarria izateko, plangintza beharrezkoa da, eta horretarako LPS-a tresna baliagarria izango da. Aurrerapen Doku-

mentuan, zentral eolikoak egiteko eremu egokien artean, Irureko Haitzetik Andutz tontor aldera eta Urkamenditik Arriola bitarteko kokapenak ageri dira. Geoparkea, Biotopoa, Izarraitzeko babesgunea... Balio handiko ingurua dugu, eta eraikuntza hauek sortuko luketen atzera bueltarik gabeko txikizioak kezka sortzen du. Industrialdea bertan izanik, energia-iturri berriztagarriak ustiatzeko hau bezalako eremu antropizatuak lehenetsi beharko liratekeela uste dugu, lur gehiago artifiziaizatu ordez. Koka- penaren eztabaidaz harago, tran-

tsizio energetikoak aldaketa sako- nagoen eskutik etorri beharko luke. Emakumeen Eguneko aldarrietako bat zaintzak erdigunean kokatzea izan da. Energiak badu garrantzia zaintza horretan, eta negozio gisa kudeatzetik eskubide gisa kudeat- zera pasatu beharra dago, herritar- rak ahaldu eta energiaren ja- betza berreskuratuz. Energiak her- ritarren benetako beharrei erantzun behar die, hazkundearen logika alde batera utzita. Energiaren erronkak aldaketa sozioekonomiko sakonak eskatzen ditu, benetan zaintza er- digunean jarri nahi bada.



Galdera batekin hasiko gara. Alda- keta klimatikoari aurre egiteko gizarte bezala, herritar bezala, zerbait ipintzeko prest al gaude? Erantzun bakarra teknologia eta natura suntsitzean oinarrituko al dugu? Debabarrenean Natura 2000 sareko naturgune babestuek eta SARE BERDEA osatzen duten eko- sistemak eta galtzeko arriskuan

eta egoera zaurgarrian dauden hainbat espezie dauzkagu. Bi ha- markada baino gehiago darama- tzagu lurraldea aktibo finantzario gisa erabiltzen. Hortik dator admi- nistrazioaren desarautzea eta es- ku-hartze falta. Azken 50 urteetan zientzialariek behin eta berriro azaldu digute etengabeko hazkun- dea ezinezkoa dela mugak dauzkan planeta batean. Argi eta garbi jakin behar dugu mendi guzti-guztiak parke eolikoz eta zelai guztiak eguz- ki-panelekin beteko bagenitu ere, ezingo genukeela gaur egungo energia kontsumoa mantendu.

Askoz energia gutxiago kontsumi- tzen ez badugu, ordezkapen hau ez da iritsiko. Nolabaiteko arrazio- naltasun eta errealismoak gidatu beharko gintuzkeela uste dugu. Izan ere, hori da, eta besterik ez, berriztagarrien makroproiektuen aurkako mugimenduek eskatzen dutena: demokrazia eta subirano- tasun energetikoa. Hau da, zer energia mota, zenbat eta zertara- ko erabakitzeko gaitasuna. Bizitza eta ekonomia birkokatzea izan daiteke irtenbidea, tokiko energia eta materialekin tokiko beharrak ase ahal izatea.



Ezin da okerrago egin. Otarre eta Atxurigain bezalako mendieta-rako proiektuak planteatzeak kontuan izanik Izarraitz mendigunean kokatuta daudela eta urak Kilimon ibaiaren akuiferora (Mendaro) drainatzen dituztela, erabateko ezjakintasuna eta zentzugabekeria erakusten ditu. Proiektu horiek lurpeko eremua-

ri eragingo lioketen kutsadura ondo dokumentatuta dago. Elgoibar, Deba, Itziar, Mendaro eta Mutrikuko urak elikatzen diren akuiferoa babesteak beste interes batzuen gaintik egon beharko luke. Beste proiektu batzuek, hala nola Kalamuakoak eta Karakatekoak, amorrarazi egin ditu herri-tarrak, mendi horiek gordetzen dituzten ondare-balioak hondatzearen aurka daudelako. Karakateren kasuan, Elgoibarko eta Sorluzeko udalek ezezko irmoa adierazi dute, baina proiektuak aurrera jarraitzen du, bi udalek

onartu dituzten Babes Planak gorabehera. Eusko Jaurlaritzak ez ditu berriztagarriak bultzatu, 40 urtean gasaren eta *fracking*-aren aldeko apustua egiten jardun delako soilik, eta orain gasaren eta petrolioaren lehengo oligopolio energetikoaren eskutik doa, energia berriztagarrien oligopolio berri gisa posizionatzeko, proiektuak esleitzuz, ingurumenean edo gizartearen suminean duten eragina gorabehera, eta udalen aurrean eta herritarren interesen aurka inposatuz. Ez, gauzak ez dira horrela egin behar.

Gipuzkoak kanpoarekiko mende-kotasun energetiko handia du (%90) eta energia berriztagarrien presentzia ez da % 8ra ere iristen. Datu horiek kontuan hartu behar ditugu erabakiak hartzerakoan, mende-kotasun energetiko handia gure eta eskualdeko enpresen kostuen igoeraren eta lehiakortasun-galeraren arrazoi bat baita, eta baita

gure herritarren erosteko ahalmena galtzearen arrazoietakoa bat ere. Lurraldeko udalerrri eta eskualde guztien trantsizio energetikoa bizkortzeko garaia da, udal askotan komunitate energetikoekin egiten ari garen bezala, baina ez da nahikoa kanpoarekiko daukagun mende-kotasuna gainditzeko. Energia berriztagarrien behin betiko bultzada eraginkorren lan egin behar dugu, eta hor energia eolikoak eta parke eolikoek aliatu izan behar dute gure lurraldean. PSEk trantsizio energetiko berde baten aldeko apustu egiten du, baina justua eta

soziala izan behar da, eta garatzen diren berriztagarrien proiektu guztiek osagai sozial hori izan dezaten lan egiten dugu. PSEk garrantzitsutzat jotzen du proiektu eolikoak gauzatzeko hauek ahalik eta zorroztasun tekniko handienarekin egitea, eta, hala, ingurumen-balioei lehentasuna ematea, proiektu guztien ingurumen-inpaktuak modu metatuan eta sinergikoan aztertuz. Horretarako, oso garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzak, energia berriztagarrien LAParen onarpena azkartzea. Plan horrek denbora gehiegi darama izapidetzen.



Kultura-, natura- eta paisaia-interes handiko eremu baten inguruan hitz egiten ari gara. Baina, aldi berean, energia merkeago eta garbiagoak nahi ditugu. Dikotomia honen aurrean, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala onartzea izango litzateke logikoen, eta hori Eusko Jaurlaritzari dagokio | Ermuko PP

# "Egin behar den lehenengo gauza energia kontsumoa jaistera da"

**IÑIGO ANSOLA** ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA

Iñigo Ansola Kareaga (Markina-Xemein, 1974) Euskal Energia Erakundeko (EEE) zuzendaria da. Azpimarratu du energia berriztagarriak lortzeko mota guztietako proiektuak beharko direla eta egin beharreko lehen gauza energia kontsumoa jaistera dela.

## **Zein da egungo egoera?**

Dependentzia handia dugu. Kanpotik ekartzen dugu kontsumitzen dugun energiaren %90 eta %10 guk sortzen dugu. Hemen sortutako horretatik %62 biomasa da, %21,7 bioerregaia, %4,9 eolikoa, %5,4 hidroelektrikoa eta %5,8 eguzki energia (2020 datuak dira).

## **Zer lortu nahi da?**

2030erako kontsumitzen dugun energiaren %21 izatea berriztagarria, izan guk produzitutakoa (%16) zein kanpotik ekarritakoa (%5). Gauregun, kontsumitzen dugunaren ia %17 iturri berriztagarrietatik sortutako energia da, inportatzen ere ari garelako berriztagarrietatik sortutako energia. %21 lortzeko, gure plan estrategikoan azaltzen da, adibidez, 783 MW jarriko dugula sektore eolikoaren bitartez; gaur egun, 153 MW daude martxan. Euskadin oso energia kontsumitzaile handiak gara. Energia asko kontsumitzen

dugunez, kontsumoaren mix hori berriztagarrien aldera ehuneko bakarra aldatzeko ere, sekulako ahalegina egin behar dugu. Ez da gauza bera Extremadurako mix energetikoa aldatzea edo Euskadikoa. Gero dator hurrengo eztabaida: energia berriztagarri asko sortu behar dugu. Baina, zelan eta non?

## **Hori da, zelan eta non?**

Ondo dago plaka fotovoltaikoekin auto-kontsumorako proiektuak sartzeari eta horretarako dirulaguntza asko banatzen ditugu; baina horrek ez du asetzen dugun premia guztia. Plakak beren teilatuetan jarrita ere, portzentaje bat lortuko dute industrietan, baina ez behar duten beste. Tamaina guztietako proiektuak behar ditugu: txikiak, ertainak, bai eta handiak ere, energia asko sortuko dutenak.

Plaka fotovoltaikoek lur eremu handiak behar dituzte. Eta eolikoak haizeak jotzen duen lekuan jarri

behar dira; gure erkidegoan, mendi tontorretan, mendi gailurretan, dago haizea. Proiektu hauek inbertsio ekonomiko handia egitea eskatzen dute, eta gutxieneko bat zaindu behar da, haizeari dagokionez. Horregatik dago interesa, baita ere, itsasoan jartzeko, han mendietan baino baliabide egokiagoak daudelako argindarra sortzeko. Baina gure itsasoak erronka zailago batzuk planteatzen ditu: plataforma kontinental sakonak ditu eta azpiegiturak flotanteak izan behar dira, baina gure itsasoak, neguan, badaki olatu ikaragarriak sortzen; gainera itsasokoa ur gazia da, eta horrek konponenteak ugertu egiten ditu. Baina hor dago baliabide oso garrantzitsua eta enpresa pribatuak sekulako apustua egiten ari dira.

## **Energia Berriztagarrien LPSaren aurrerapenean, zortzi gune optimo markatu dira Debabarrenean eolikoetarako. Zer lortu nahi da horrekin?**

Legeak zein gunearen ezaugarriak kontuan hartuta, ikusten dira zeintzuk diren gunerik onenak parke eolikoak jartzeko. Beste kontu bat da gero enpresek gune horiek interesgarriak ikusten dituzten edo ez. Aldagai desberdinak aztertu beharko dituzte. Adibidez, izan

**"783 MW jarriko dugu sektore eolikoaren bitartez, gaur egun 153 MW daude martxan"**





Iñigo Ansola Kareaga. Argazkia: EEE.

daiteke gune bat oso egokia haize aldetik, baina konexioa 25 kilometrorra izatea eta horrek ez egitea hain aproposa izatea. Normala den moduan, edozein parke negozio plan bat izan behar du atzetik, burutzen diren inbertsioak oso handiak direlako eta proiektu horiei etekina atera behar zaielako. Beraz, gerta daiteke LPSan egokitzat jotzen den eremu batera inor ez joatea proiektu batekin, ez delako interesgarri ikusten.

**Alemanian, adibidez, autobide batzuk plaka fotovoltaikoz estalita daude. Hau da, gune degradatuak erabildituzte energia produzitzeko. Halakoak hemen ezin dira egin?**

Denak beharko ditugu. Argi eta garbi. Aztertzen ari dira, adibidez, harrobietan eguzki energia aprobetxa daitekeen, bide

bazterretako zortasun -bideak erabiltzea, urtegietan eguzki-plaka flotanteak jartzea... Ideia asko daude. Dena da aztertzea proiektuek zenbat argindar sor dezaketen, inbertsioak nolabaiteko itzulera izango duen ikusteko. Guztiek dute inpaktua, eta aztertu egin behar dira.

**Hemen eta han, kontrako jarrera handiak ikusten ari gara zenbait proiektukiko. Zelan baloratzen duzue hori?**

**"Herritarrok proiektu horiek geureganatu eta geure sentitu behar ditugu"**

Ulegarria da. Argi dago parke eolikoek zein fotovoltaikoek ingurumenarekiko inpaktua dutela. Egin behar dena da parke horiek indarrean dagoen legedia, ingurumen baldintzak eta beste era batekoak betetzen dituztela bermatu. Bermatzen baldin bada hori, zalantzarik gabe, aurrera, energia ikuspegitik oso premiazkoak ditugulako. Erroka bat ere badugu: herritarrok proiektu horiek geureganatu egin behar ditugu eta geure sentitu. Gaurko teknologiak laguntzen du geureganatzeko modu desberdinak sortzen: sortzen den argindarrarekiko onuradunak izanda edo parke horretan geure jabetasuna izateko aukera izanda.

**Ez da aztertu energia kontsumoa jaitsi beharra?**

Egin behar den lehenengo gauza da hori: energia kontsumoa txikitzea. Zenbat eta energia gutxiago kontsumitu, orduan eta errazagoa izango da iturri berriztagarrietatik lortzea. Energia mailan politikarik eraginkorrena izango da eraginkortasun energetikoa. Produktu bat lortu energia gutxiago erabiltzen edo gure etxea berotu energia gutxiago erabiltzen. Horretara diru asko dugu zuzenduta, geroz eta energia gutxiago kontsumi dezagun etxeetan, industrian, zerbitzuetan, eta zer esanik ez, batetik bestera mugitzeko.

# "Argi dugu herritarren gehiengoak ez duela proiektu hau nahi"

## KARAKATE BIZIRIK PLATAFORMA

Orain dela 20 urte entzun ziren estreinakoz Karakaten parke eolikoa eraikitzeko aukerak aztertzen ari zirela, eta orduan sortu ziren Elgoibarko eta Soroluzeko Karakate Bizirik plataformak, Karakate babesteko helburuarekin. 2022ko urte hasieran aktibatu zituzten berriro bi taldeak, Green Capital Energy enpresak Karakaten parke eolikoa eraikitzeko proiektua aurkeztu zuenean. Herritarrak informatu eta hainbat ekintza egin dituzte, Karakate bizirik nahi dutelako.

### **Karakate gainean egin nahi duten parke eolikoaren kontra bildu zarete. Zeintzuk dira proiektuaren kontra egiteko ikusi dituzuen arrazoi nagusiak?**

Karakate ingurua bere osotasunean babestea da gure helburua. Izan ere, bizi garen zonalde industrializatu honetan, mendiak dira gure arnasgune bakarrak. Karakate mendi berezia da gainera inguruko herritarrontzat, dugun lotura afektiboaz gain inguruak dituen balio askotari-koengatik: geologia, ekologia, arkeologia, paisaia zein aisiaren ikuspegitik babestu beharreko eremua dela uste dugu.

### **Duela 20 urte egon zen Karakaten parke eolikoa egiteko beste saiakera bat, eta orduan atzera bota zuten. Zelan ikusten duzue bigarren saiakera hau?**

Asko arduratu gaitu proiektua berrartzeak. 1998an izan zen lehen saiakera, eta herritarrok gelditzea lortu genuen orduan.

Orain, eskualdeko mendietan hainbat proiektu aurrera eramateko arriskua dago. Karakatez gain, Kalamua, Akondia, Txurruka gaineko Koskorreta-Ozeta, Andutz-Txobillar, Otarre-Larraskanda, Juangoikomendi, Urkamendi-Arriola ere kokagune egokitzat aurreikusten dira. Beraz, aukera hau baliatu nahi dugu, eskualdeko gainontzeko herrietan gaiarekin kezka duten biztanleak gugana gerturatu daitezten gonbitea egiteko.

### **Zein puntutan ikusten duzue une honetan Green Capital en-**

### **"1998an izan zen lehen saiakera, eta herritarrok gelditzea lortu genuen orduan"**

### **presak Karakaten jarri nahi duen parke eolikoaren proiektua?**

Proiektu definitiboa egon ez arren, gure mendien kontrako faktore asko ditugu, besteak beste, Europako, Madrilgo eta Gasteizko Gobernuak mega proiektuak garatzeko onartzen ari diren erraztasunengatik. Urte askoan administrazioak ezer egin gabe egon dira eta orain dena korrika egiteko beharra dute, Europak ezarritako berriztagarrien ekoizpen kopuruetara iristeko, eta inolako egiturazko plangintzarik gabe dabilta. Ondorioz, enpresa pribatuak dira proiektuak txanpinoi moduan planteatzen ari direnak. Karakateko asmoari dagokionez, Proiektua eta Ingurumen-Inpaktuaren azterketa publikoa egiteko zain gaude, eta hauteskudeen ondoren publiko egingo duten susmoa dugu.

**Karakate-Hirukurutzea gaina arkeologikoki babestutako ingurunea da, baina proiektu hau**



Karakate Bizirik plataformako hainbat kide.

### **atzera botatzeko adinako babesik ba al dauka?**

Green Capital enpresak Hastapeneko Ingurumen inaktuaren txostena aurkeztu zuen abuztuan. Bi herrietako plataformek, mendi taldeen laguntzarekin, eta baita Bergara, Soralue eta Elgoibarko udalek ere ekarpenak egin genizkion txosten horri. Guretzak badu babes nahikoa, aurreko saiakeran ere Babes Arkeologikoagatik bota zutelako proiektua atzera, baina argi dugu, nahi badute egingo dutela, interes ekonomiko handiak daudelako tartean eta Administrazioa alfonbra gorria jartzen ari delako Energiaren Lobbyei. Aurre egiten aurkituko gaituzte.

**Elgoibarko eta Soraluezko udalak proiektuaren kontra posizioatu dira. Horrek lagundu dezake proiektua atzera botatzen?**

Proiektuaren aurkako eta Karakate babestearen aldeko posi-

zisionamendu oro da positiboa, zer esanik ez herritarron ordezkaridiren erakundeek aho batez egiten badute. Baina badakigu azken erabakia ez dela udalena, hau da, proiektua geratzea ez dagoela erabat udalen esku. Hala ere, gutxienez herrien posizioa argi lagatzeko balio du, hemen kontratasun eta kezka bat dagoela erakusteko. Aldi berean, antolatu ditugun ekimenetan parte hartu izana eskertzea nahiko genieke herritarrei (Mendi Martxa, jende katea, hitzaldiak, 2.026 sinadura Elgoibarren...). Argi dugu, herritarren gehiengoak ez duela proiektu hau nahi.

**Karakaten ez dituzue eolikoak nahi, baina ez zarete energia eolikoaren kontra agertu. Eolikoak zein baldintzatan onartuko zenituzkete?**

Eolikoaren ezarpenak plangintza bati jarraitu beharko lioke, lurraldearen behar eta aukeren analisi arrazional batetatik abia-

## **"Megaproiektuak baina, proiektu herrikoia goak bultzatu behar dira"**

tuta, eta ez inprobisazioaren emaitza izan. Azken honek eraman du txanpinoiak bezala zentralak bata bestearen atzetik proiektatzera. Plan sektorial horrek aspaldi behar zuen osatua, baina momentuz zirriborroa baino ez da egin publiko. Behin betiko plana osatu arte, herritarren parte-hartze ezinbestekoarekin, planteaturiko proiektuei baimekin ez litzaiekeela eman beharko iruditzen zaigu, adibidez moratoria bat ezarritik. Eolikoak ezarzteko baldintzetan ez gara adituak, baina iruditzen zaigu zenbait irizpide batzuk kontuan hartu beharko liritekeela: inguru antropizatuei lehentasuna eman (harrobiak, industrialdeak...), nekazaritza eta abeltzantzarako balio altuko eremuak eta naturaguneak babestu... Kapitalaren akumulaziorako diren megaproiektuak beharrean eskala txikiagoko proiektu herrikoia goak bultzatu behar direla uste dugu.

**Egungo kontsumo ohitura eta kopuruari begira, zein alternatiba proposatzen duzue?**

Gure taldeak ez ziren sortu alternatibak plazaratzeko, Karakate babesteko baizik. Hala ere, herritarrak informatzeko hitzaldiak antolatzen gabilta, praktikan dauden eredu eta alternatiba ezberdinen berri emanez. Izan ere, Lobbyen interesen gainetik alternatibak egon badaude.



# "Trantsizio ekosozialak energia berriztagarrien inplementazio azkarra behar du"

ALAITZ AJURIAGERRA JAUZI EKOSOZIALA

Urte hasieran Jauzi Ekosoziala dinamika aurkeztu zuten, iaz egin ziren Ekotopaketetik abiatutako ekimena. Alaitz Ajuriagerra eibartarra da dinamika horretako kideetako bat.

## **Nolako egitasmoa izan zen Ekotopaketak? Zergatik eman dizue pauso hau?**

Ekotopaketak krisi ekosoziala eztabaidatzeko eta gaia jorratzeko helburuarekin antolatu genituen, askok mugimendu ekologista artikulatzeko eta indartzeko beharra ikusten dugulako. Asko dira tokian-tokian gai ezberdinen bueltan antolatuta dauden taldeak, izan basogintza ereduak lantzen dutenak, elikadura burujabetza lantzen dituzten kontsumo talde eta nekazariak, erraustegiaren aurkako taldeak, AHTaren aurkakoak... Baina ikuspegi orokor batetik begiratuko duen mugimenduaren falta igartzen dugu, ekologismoa modu transbertsalean landuko duena eta gai sozialekin lotuko duena. Izan ere, gure egunerokoan ekologismoak arlo askotan bustitzen gaitu, nahiz eta kontziente ez izan. Borroka ekologista klasikotik haratago joan nahi dugu, eta krisi ekosoziala agenda politikoaren

erdigunean jarri. Helburu nagusia jendartera heltzea izan beharko litzateke, gai ekologikoak bizitzen ari garen krisi honetan eztabaidagai egon daitezen.

## **Zeintzuk dira zuen helburu nagusiak?**

Esan bezala, ekologia erdigunera ekartzea eta gai sozialekin uztartzea da helburu nagusia. Ekologismoa eta krisi ekosoziala agenda sozial eta politikoaren erdigunera eramatea, alegia. Horretarako gure artean saretzea, beste gai batzuetan politizatuta eta aktibatuta dagoen jendea ekologismora hurbiltzea eta jende ez politizatua ere aktibatzea izango da erronka handiena.

## **Nolako trantsizio energetikoa egitea proposatzen duzue?**

Trantsizio energetikoa beharrezko trantsizio ekosoziala proposatzen dugu. Horrek dituen zailtasun guz-

tiak kontuan hartuta, ikuspegi global eta orokor batetik begiratuta, begirada sistemikorekin. Trantsizio ekosozialak energia berriztagarrien inplementazio azkarra behar du, baina ez edozein modutan. Irizpide eta baldintza minimo batzuk ezinbestekoak dira: planifikatua izan behar du, parte-hartzailea eta demokratikoa. Makroproiektu berriztagarriak jartzearekin bakarrik ez dugu arazoa konponduko. Egun trantsizio energetikoa korporazio handiek zuzentzen dute, helburu nagusi bakarra etekin ekonomikoa ateratzea dute eta ez dago modu ordenatu eta planifikatuan planteatuta. Kontsumo energetikoaren murrizketa handi batekin batera planifikatu beharko litzake horien instalazioa, eskala ezberdinetan, parte-hartze publikoarekin, inpaktuak kuantifikatuta edo aztertuta eta erreparazio eta konpentsazioak kontuan hartuta, eta horiek sor ditzaketen etekin ekonomiko eta sozialak kalteuak izango direnekin elkarbanatu. Sentsazio orokorra da, erreagai fosilak ordezkatu baino mix energetikora gehitzeko planteatu direla modu inposatu batean. Bestalde, klima larrialdiaren kausa eta

## **"Krisialditik modu duinean ateratzeko, nola nahi dugun bizi birpentsatu behar dugu"**



Jauzi Ekosoziala ekimenaren bozeramaileetako bat da Ajuriagerra.

ondorioez, biodibertsitatearen galeraz, gure eredu sozioekonomikoaren jasangarritasunaz, gure mugikortasunaz, gure kontsumo ereduaz, gure pribilegioez gutxi egiten da berba, eta klabeak dira trantsizio justu baterantz joateko. Baliabide mugatuak dituen planeta batean hazkundean oinarritutako sistema ekonomikoa ezartzea izan da hona ekarri gaituen arazoa. Energia zertarako eta norentzako galderari erantzun behar diogu alde batetik, eta gero, non eta nork sortuko duen. Denon bizitza duinak eta oinarritzko beharrak asebetetzeko, beharrezkoa da energia kuantifikatzea, eta horretarako beharrezkoak izango ditugun azpiegiturak zeintzuk izango diren kalkulatzeko, ahalik eta inpaktu txikiena dutenak bilatzea, etab

### **Prest gaude trantsizio horretarako?**

Ez gaude prest, baina ahalegina egin behar dugu, bestela inposatu egingo zaigu. Neurri batean aldaketa baten aurrean sartuta gaude, pobretze prozesu batean murgilduta gaude, eta bizitzaren garestitzearekin batera, gure kontsumo eredu ere aldatzen hasiak gara desazkunde baterantz. Beste eredu baterako trantsizioa bideratzeko, ezinbestekoa da gizartean adostasunak bilatzea, gure burua berrasmatezea eta gizartearen erdigunean beste helburu batzuk jartzea. Krisialditik modu duinean ateratzeko, nola nahi dugun bizi birpentsatu behar dugu, guztiontzat beharrezkoak diren ase beharrak zeintzuk diren, ondasunak nola banatzen diren, lanak, zaintza eta denbora,

gizartean erabakiak nork eta nola hartzen dituzten...

### **Zer iruditzen zaizue LPSak gure mendietan parke eolikoak jartzeko egindako proposamena?**

Ez ditugu LPSak aztertu, ez gara adituak horretan eta ez dugu gure eginkizun bezala hartzen. Baina iritzi bat ematearren, eta oker ez banago, LPSa ez dago bukatuta eta moldaketak izango ditu. Ziur nago planteatzen diren leku askotan ezingo direla horrelako proiektuak aurrera eraman, ezin baita soilik ekoizpena kontuan hartu, natur-babesgunez gain korridore ekologikoak eta bestelako plan sektorialak ere integratu behar direlako. Bestelako eredu sozioekonomiko bat aldarrikatu nahi badugu, kontuan hartu behar ditugu zein lur erabiliko diren elikadurarako eta abeltzaintzarako, zein basogintzarako, zein lur babestu behar diren interes handiko naturguneak direlako, zein industriarako... eta agian kontsumo energetikoa murrizteko plan sektoriala ere aldarrikatu beharko dugu. Plangintza integrala aldarrikatzearen aldekoa naiz, modu ordenatuan, nahi eta behar dugun eraldaketa planteatzeko, trantsizio ekosozial baten bidean.

# Debabarreneko herritarren iritzia

GAIA GERTUTIK EZAGUTZEN DUTEN ESKUALDEKO HERRITARREN BERBAK



## ALAIN ULAZIA

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN  
GRADUKO IRAKASLEA EHU-N

Irudikatu 40 elefanteke talde bat Usain Bolten abidan korrika. Kuadrilla horrek duen potentzia xurgatzeko kapaz da gure super-

-kontsumoa mutur parean ikus-tarazten digun haizerrota erraldoi bat. Nola ikusten duzu jendez hustutako Burgos, Nafarroa eta Aragoiko mendialdeak erraldoi hauekin josi eta gero honantz argindar kable potolo bat botatzea? Edo eskola aurkezpen batean ume batek esan zidana: "Ba! Zetako errota horrek, Espaini aldiaren zentral nuklear batzuk ipini eta lixto!". Aurrezpen energetiko nabarmena (adb. %50 2050rako) eta erabateko dekarbonizazioa premisatzat, dauden parkeak aprobeztatuta haizerrota modernoagoak ipintzeko, garraioa kolektibizatuta,

fotoboltaika eta eolika txiki-ertain komunitarioa erruz bultzatuta udalerrri mailan, eta mendi-goietan ura metatuko duten deposituak erabilia bateriatzat, erraldoi haue-tako oso gutxi beharko dira.

**"Eskolan ume batek esan zidana: Ba! Zetako errota horrek, Espaini aldiaren zentral nuklear bat ipini eta lixto!"**



## JUANKAR ANDRES

HEGAZTIZALEA ETA BLOGEROA

Trantsizio energetikoa premiazkoa da klima-larrialdia dela-eta, eta bat etorri behar da trantsizio ekologikoarekin. Esparru horretan, energia berriztagarriak oso garrantzitsuak izango dira epe moztzean eta ertainean. Trantsizioa

eredugarria izan behar da, bai denboran bai forman, eta hura jasangarria dela bermatzeko, erabakigarria da "non" eta "noiz" aldaeren gainean hausnarketa egitea. Eolikoen garapenak errespetatu behar ditu ondare naturala eta bioaniztasuna, balio ekologiko handia duten espazioetatik kanpo geratu behar dira, eta jada degradatuta eta antropizatuta dauden inguruetan kokatu. Izan ere, parke eolikoek eragin negatiboak dituzte hegaztiengan, nabarmentzekoak: hegaztiak hiltzen dira haiek jota, hegaztien habitatak suntsitzen eta aldatzen dira, eta barrera-efektuak eta desplazamenduak sortzen dituzte, besteak beste.

Seo/BirdLifen azken txostenaren arabera, 6 eta 18 hegazti miloi inguru hiltzen dira urtero parke eolikoetan. Nik neuk ikusi dut Oiz mendian eoliko baten pala sai bati kolpea eman, eta hegoa apurtzen. Topatu ditut hilda miru gorriak, arrano sugezaleak eta saguzarrak, guzti-guztiak espezie babestuak direnak.

**"Nik neuk ikusi dut Oiz mendian eoliko baten pala sai bati kolpea eman, eta hegoa apurtzen"**





**DANEL DE PRADO**  
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN  
INGENIARIA

Debabarrean energia berriztagarrien kuota areagotu beharra agerikoa da; hidraulikoak eta olatu-energiak osatzen dute (autokontsumoaz gain) 2,5 MWko potentzia instalatuko sorkuntza ahalmena, energia-menpekotasuna handia delarik.

Gaur egun, aerosorgailu bakar batek potentzia hau erraz hiru-

## "EAEn dugun energia defizitari aurre egiteko beste formula batzuk bilatu behar ditugu"

koiztu lezake. Hala ere, paisaian duen eraginaz gain, parke eoliko baten azpiegiturak (sare elektrikoak, pista zabalak...) naturan duen eraginak munta handia du. Lautada eta mendi baxuen erliebean edo malkartsua den Debabarrenean eragin hau zeharo desberdina da. Gainera, betiko suntsitu litezke aisigune diren zenbait eremu (Kalamua eta Karakate, besteak beste).

Beraz, eskualdean eta, orokorrean, EAEn dugun energia defizitari aurre egiteko beste formula batzuk bilatu behar ditugu, arreta berezia eskainita eragin-kortasunari.



**MIRIAN ARRIZABALAGA**  
BIOLUR

Mendietan parke eolikoak jartzeko asmoak entzutean, haiek jarri nahi diren lekura eramateko eta gero energia garraiatzeko egin behar diren apurketak etortzen zaizkit lehenik burura; fabrikaziorako beharrak batu beharko genituzke aurretik. Bigarren kolpean elikadurarekin egiten dut konparaketa, bi kasuetan kanpo dependentsia oso

## "Etengabeko aldaketan bizi gara, baina norantz eta nola aldatu nahi dugu?"

handia dugu eta kontsumoan eta xahuketan, munduko batez beste-koekin alderatuta, gainetik gabiltza. Koktelak osagai gehiago ditu, baina datu batekin osatuko dut: azken bi hamarkadetan aurreko mende guztietan baino lur gehiago artifizializatu da eta bailararen industrializazio maila dugu horren adibide. Instalazioak egitekotan, lehenik eremu horietatik hasi beharko genuke. Elikatu ala konektatuta bizi? Lurra, ura, haizea eta eguzkia, jana eta energia; bi behar eta eskubide, jada gizartearen zati batek ase ezin dituenak. Etengabeko aldaketan bizi gara, baina norantz eta nola aldatu nahi dugu?



**DIEGO MENDOZA**  
DEBANATURA

Debabarreko energia berriztagarrien LPSaren aurrerapena dela eta, parke eolikoaren kopuru harrigarri batek mehatxatzen dituen gure mendien amaiera hori gure munduaren amaiera izango da. Ez dut exageratzen oso gai garrantzitsua dela esaten badut, beti gure askatasun, ezinegon eta ongizate amaigabearen arnas izan diren

## "Horrela harrikatu nahi dute betiko gure mendietako paisaia"

mendi horien gainean ezartzen den mehatxu horrek ezinezkoa egiten baitu oraindik ere hala izaten jarraitzea. Orain, betiko botere horiek, atzean izen berberak dituztenak, interes berberak dituztenak, oparotasun sakrosantuenaren izenean eta baliabideen krisi-egoera bati erantzungo dion trantsizio energetikoaren bandera faltsua goratuz, aurrekoak bezain kaltegarria den industria berri batekin aurkezten dira, energia berdeak deitzen dituztenekin, baina ez direnekin. Horrela harrikatu nahi dute betiko gure mendietako paisaia, benetan geratzen zaigun gauza bakarra.



**ISA PRIETO**  
GEOGRAFOA

Onartu behar dut ez dudala proiektua bere osotasunean ezagutzen, ezta xehetasun teknikoak ere. Nire printzipioetan oinarrituta, ezarri ditzakegun era guztietako energia berriztagarrien alde nago, gure energia-kontsumoaren on-dorioak murrizte aldera. Era berean, uste dut formula jasagarrien esparruan ezin direla aplikatu irtenbide-eredu berdinak beti, eta leku baterako egokia dena balite-

**"Ezarri ditzakegun era guztietako energia berriztagarrien alde nago"**

ke proposa ez izatea beste leku baterako. Energia berriztagarrien kontsumo kooperatiba bateko kontsumitzailea naizen heinean, badakit ere argindarraren fakturaren prezioa gutxitzeko formularik onena dela baliabideak optimizatzea, bai ekonomiari bai ingurumenari erreparatuta. Izan ere, energiaren larregizko prezioaren inguruan bolo-bolo dabilen eztabaidaren aurrean, galdera bat datorkit burura: gutxiago kontsumitu nahi dugu, ala bakarrik gutxiago ordaindu?



**OIER ETXEBARRÍA**  
GOIENER

Etorkizunean zein gizarte eta kontsumo eredu izango ditugun hausnartu beharra daukagu. Zenbat energia beharko dugun eta nola sortu nahi dugun ere erabaki behar dugu. Gaur egun kontsumitzen dugun guztia berriztagarriekin sortu ahal izango dugula pentsatzea ez da errealista. Lurralde, material eta denbora falta daukagu eta beraz, energia beharrak asko gutxitu ezean, kaosa ziurtatuta dago.

**"Zenbat energia beharko dugun eta nola sortu nahi dugun erabaki behar dugu"**

Goienerren, bazkide boluntario eta langileek osatutako lantalde baten hausnarketa egiten ari gara eta energia berriztagarrien proiektuek sabai ekologikoa eta lurzoru etikoa errespetatzeko oinarriak zehazten ari gara. Goienerretik baldintza hauek proposatu dira: parte-hartze handia eta kalitatezkoa eskatzea, ezaugarri buruzko erabaki-ahalmen handia bermatzea herritarrei, kaltetutako herritarren onartzea, eragindako herritarrei onura ekonomikoak ematea eta ingurumen-inpaktua aztertzea.



**IOSU AIZPURU**  
ENERGIAREN ARLOKO  
KOORDINATZAILEA MU-N

Energia berriztagarrien alde egin behar dugula ez dago dudarik. Hala ere, energia berriztagarriak instalatzerakoan gizartean, bizigunean eta naturan duen inpaktua baloratu behar da. Gure gizarteak biziko dituen erronka energetikoak berriztagarrien, autokontsumoaren eta efizientzia energetikoa handitzearen batura batekin lortu behar ditugu. Gure bizigunea den Debabarrenean

**"Haize gune egokiena izan arren agian ezin da parke eoliko bat egin"**

autokontsumoa sustatu eta energia berriztagarri eolikoa sustatzeko ikerketa eta informazio gehiago behar dugu. Erabiltzaile gisa, proiektu desberdinen lokalizazio, diseinu eta kokapenaren erabakiekiko informazio eskasa nabaritzen dugu, eta horrek mesfidantza sortzen du. Bukatzeko, ezin dugu ahaztu naturan izan dezakeen eragina. Hai-ze gune egokiena izan arren, agian, ezin da parke eoliko bat egin. Parke eolikoak bai, baina ez nolana.

# Presen erabakia udazkenean

Udal taldeek adierazpen bateratua kaleratu dute iragarriz Udalak udazkenean hartuko duela Merlin proiektuaren gaineko erabakia.

Martxoaren Iean, EH Bildu, EAJ eta PSE-EE alderdien udal taldeek adierazpen bateratua kaleratu zuten, iragarriz hiru taldeek prozesu edo bideorri bat adostu dutela eta Udalak bide-orri hori gauzatu eta gero, udazkenean, erabakiko duela Merlin proiektuarekin aurrera egin ala ez.

## Bideorria

Udal taldeen iritziz, “erabakia modu egokian hartzeko lehen baldintza da denok, bai udal ordezkariok eta herritarrok, ondo informatuta egotea” eta horretarako Udalak txosten bat eskatuko dio Urak agentziari Soraluzeke uholde arriskuaz eta Aranzadi elkarteari, berriz, “lan arkeologiko bat egiteko, presek daukaten kultur balioa aztertu

eta txosten baten jasotzeko” eta informazio hori herritarrekin partekatuko dute. Ostean, aipatutako informazioa Merlin proiektuak planteatzen duenarekin alderatuko dute, EHU-UPVko Ekologia Departamentuarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Obra hidraulikoetako Departamentuarekin batera. Lanketa hori egin ostean, erabakiko luke Udalak Merlinekin aurrera jo ala ez..

## GDI ez dago ados

Gure Deba Ibaia taldea ez dator bat bide-orriarekin. Hala, “erreferendum-eskabidea” aintzakotzat ez hartzea egotzi dio Udalari, eta “herriko ondarea babesteko betebeharrari” heltzeko eskatu dio, “itzulipurdika ibiltzeke”.

## Patricia Borinaga alkategai sozialista

PSE-EEK jakinarazi duenez, Patricia Borinaga da Soraluzerako aurkeztuko duen alkategaia. Borinagak dioenez, izendapenaz “harro” dago eta “guztien bizi-kalitatea hobetzeko” lanean segituko du. Esan du, baita ere, “ziur” daudela “posible dela Soraluze hobe bat, ez ordea herritarrengan itxaropen faltsuak sortzearen kontura, ezta bete ezin diren gauzak agintzearen kontura ere, Udalaren mende soilik ez daudelako”.



Patricia Borinaga.

## Tokikomen jardunaldietan

Hamar urte bete dira euskarazko 76 toki komunikabide batzen dituen Tokikom Taldea eratu zenetik, eta urteurrena ospatzeko, joan zen barikuan gertuko kazetaritzaren inguruko jardunaldiak antolatu zituen Getxon. Pil-pileaneko lankideak eta Udaleko ordezkariak elkarrekin izan ziren bertan.



TOKIKOM



## GUTUNAK

### Mbaye

#### XABIER EUZKITZE

NOTICIAS DE GIPUZKOA 2013-02-24

MBAYE zuen izena, Mbaye Ndaye. Duela zazpi urte iritsi zen Senegaldik Euskal Herrira. Bazterrik bazter ibiltzen zen, han eta hemen CDak, DVDak, erlojuak edo gerrikoak saltzen. Gipuzkoako herririk zabalentsuenean ibiltzen zen, besteak beste: Soraluzen. Ez barrerik egin. Herria, eraikin eta kaleen gaintik, herritarrak dira, eta soraluzetarrak beti izan dira eskuzabalak eta irekiak. Ezaugarri horiek berberak zituen Mbayek ere, horregatik sortu zen hain harreman berezia euren artean. Bat-batean, 32 urteko mutikoak, sasoi beteko mutil gazteak, iktus bat izan zuen herriko Gaztelupe tabernan. Bertan hil zen. Berriak tristezia eta

hustasun izugarria eragin zuen soraluzetarren bihotzetan. Gorpua Senegalera bidaltzea zor ziotela iruditurik, di-da batean antolatu zuten bilera kiroldegiko zineman. 160 lagun bildu ziren, ezin aretoan denak sartu. Handik irten zen laguntza deia, eta Ndank Ndank elkartearekin batera koordinatu dute dena. Bost eguneko epean 2.400 euro bildu zituzten Elgoibarren, 1.400 Bergaran, 14.000 Soraluzen. Herritar bakoitzeko 4 euro, batez beste! Dirutza horri esker, Mbayeren gorpua sorlekura bidaltzeaz gain, haren alargunari eta hiru seme-alabei hilean 300 euro bidaliko dizkiete bost urtez.

"Zergatik utzi du Mbayek hain arrasto sakona zuengan?" galdegin diot Joxean plazentziar adiskideari. Braust erantzun dit: "hura ezagutu ahal izatea zorte handia izan delako. Mutil apala

zelako, irribarre-tsua, edonori bakea transmititzen ziona. Elkarbizitza eredu aparta". Alargunaz oroitu naiz, seme-alabez. Senarra eta aita galdu izanak emandako kolpe latzaz harago, zer pasatzen ote da haien burutik? Ezin sinetsita egongo dira, horrelako elkartasun uholdea eragiteko zer nolako itzala utzi behar izan duen ulertu ezinik. Ez dut Mbaye eta haren ereduaz ezagutzeko zoririk izan, baina haren euskal bizikideena bai. Bikaina. Zirrargarria.

Zutabe hau Joxean Iñurrietaren bidez heldu da Pil-pileanera. Otsailaren 7an, 10 urte bete dira Mbaye Senegaldarra bat-batean hil zela, iktus batek jota. Herrian diru bilketa handia egin zen eta alargunari eta seme-alabei laguntza bidali zieten bost urtez.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

## KOMIKI TIRA



## HAUSNARKETA

**Dispertsio politika**

34 urte eta gero, amaitu da euskal presoak urruneko kartzeletan sakabanatu eta senideak ehunka kilometro egitera behartu dituen kartzela politika.



**IRAULTZ ARLUZIAGA**  
SARE

"Poza sentitu dut, oraingo umeek ez dutelako bizi beharko nik bizitakoa. Ni jaio baino lau hilabete lehenago eraman zuten aita preso, 18 urtera arte. Bidaia luze eta gogor haien oroitzapena datorkit, gogorra izan zen oso, baina jendearen elkartasunari esker, eramangarriagoa.



**IRANTZU BENITO**  
SAKABANAKETA  
POLITIKAREN BIKTIMA

"Poztasuna eta lasaitasuna sentitu dut, presoengatik, egoera bera jasan dutenengatik eta jasaten ari direnengatik. Inpotentzia ere bai, 34 urte iraun duelako. Pertsonalki, istripua baino lehen, km. asko egin genituen, osaba bisatzeko. Istripuan, laguna eta senarra galdu nituen eta fisikoki eta psikologikoki min handia eragin zidan".



**ROSA ETXEBERRIA**  
ETXERAT

"Zoriontsu sentitu naiz, hainbeste urteren ondoren, politika krudel bat amaitu dela jakitean. Bidaien izua etorri zait burura, beti senideen eta lagunuen bueltako dei horren zain. Baina presoan senideen artean elkartasun sarea osatu genuen. Hori zapuztea ez zuen lortu dispertsio politikak.



**MARIFRAN AIZPURU**  
SEMEA HIL ZITZAION  
ISTRIPU BATEN

"Egia bada, oso pozik sentituko naiz. Oso gogorra da seme-alabaren bat galtzea, baina desberdina da ohean, zainduta, norberak laguntza eman ahal izan ondoren izatea. Bestea izugarria da. Sekula ezin da ahaztu. Istripuaren errua izan zen bidaiak egin beharra, halako baldintzetan. Azkenak izan daitezela, benetan.

## PUNTUA



**OLATZ SEBAL**

**Mauriziak ez du inor hil**

**D**uela hilabete inguru entzun nuen proiektu honen berri lehen aldiz, eta ezin dut hitzez azaldu zenbat gustatu zitzaidan.

Ines Osinaga eskolara etorri zen, Olatz Salvadorrekin batera, Emakumeak Oholtzara tailerra batxilergoko zenbait ikasleri eskaintzera.

Bertan proiektuaren nondik norakoak azaldu eta honen zati bat eskaini zigun Osinagak. Mauriziaren koplak zaharrak, makinatxo berrien laguntzarekin (pedal eta botoidun horietakoak, ahotsak eta soinuak nahastu, performatu, grabatu eta bata bestearen gaintik jartzen dituztenak) musika moderno bihurtuta. Entzumenerako orgia zoragarria.

Ikasle gehienek ez zuten Maurizia ezagutzen. Hauetako askok gure aurrean genituen bi artista hauek ere ez zituzten ezagutzen. Euskal musika eta artista emakumeak, tope underground. Baina nik benetan haluzinatu nuen.

Maurizia Aldeiturriaga influencer moduan irudikatu, honen *Aupa Maurizia!* oihu ahalduntzailea birmasterizatu entzun, panderoa eta performanceak, Arrate Irratiko soinuak gogoan eta artistatzarrak aurrean... Udaberri honetan osorik ikusi beharreko ikuskizuna, zalantza barik.





Mikel Layza, Ane Bastardo eta Aiora Ballesteros.

# Euskal selekzioarekin

Ane Bastardok, Aiora Ballesterosek eta Mikel Layzak Euskal Herriko Irristaketa Selekzioarekin jokatuko dute maiatzean, Selekzio Autonomikoen Arteko Txapelketan, Jacan

Maiatzaren 11tik 14ra Selekzio Autonomikoen Arteko Txapelketa jokatu da, Jacan. Txapelketan 9 Irristaketa federaziok parte hartuko dute, emakumezkoetan zein gizonezkoetan eta helduen zein umeen mailetan: Euskal Herrikoak, Gaztela eta Leongoak, Madrilgoak, Kataluniakoak, Valentziakoak, Galiziakoak, Kanariar Uharteetakoak, Andaluziakoak eta Aragoikoak.

Euskal Herriko Irristaketa Selekzioari dagokionez, infantilen mailan hiru soraluzetar deitu dituzte txapelketarako: Soraluzeko Marras Irristaketa Taldeko Ane Bastardo eta Aiora Ballesteros,

eta Bergarako Burdinola taldean diharduen Mikel Layza.

## Urduri baina pozik

Soraluzetar gazteak urduri, baina aldi berean pozik daude euskal selekzioaren deiarengatik. Pozik, patinatzen hasi zirenean, ez zutelako espero horren denbora laburraren ondoren selekzioarekin lehiatuko zirenik. Eta urduri, selekzioarekin lehiatzera joateak duen esanahiarengatik. Hori bai, kasu horretan, Ane Bastardok selekzioarekin iaz izan zuen esperientzia (Galizan izan zen Euskal Herriko selekzioarekin) lagungarri izango zaie guztiei ere.

## "Hobetu" nahia

Ane Bastardo eta Mikel Layza orain dela lau bat urte hasi ziren patinatzen, domeketako irristaketa saioetan. Geroago, plastikozko makilekin hockeyan jokatzen hasi ziren eta gero, Iraitz Ibarzabalek irristaketa taldea sortu zuenean, Marras taldean sartu ziren. Aiora Ballesteros, berriz, behin kalean patinatzen ikusi zuten eta galdetu zioten ea hockeyan apuntatu nahi zuen eta Marras taldean hasi zen. Ballesterosek eta Bastardok Marras taldean dihardute. Hasi zirenetik, hockeyan hobeto dabiltzala uste dute, baina "hobetu" egin nahi dute.

Layzak, berriz, Bergarako Burdinola taldean dihardu orain dela bederatzita hilabete. Kataluniara, Valentziara... joan izan da haiekin. Bidaiak gogorak egiten zaizkio, baita beste taldeen kontra jokatzea ere, goragoko mailakoen kontra ere jokatzen baitu. Hala ere, "hobekuntza" handia ikusten du eta jokoan ona dela uste du, nahiz eta Layzak ere hobetu egin nahi duen.

Hori bai, hirueta bategi berak ere ez du nahi profesional izatea, hori "oso gogorra" dela uste dute hirurek, edozein kiroleran profesional izateak presio handia suposatzen baitu, besteak beste. Layzaren kasuan, Gasteizko Bipolo taldean jokatzea nahiko luke, dena den.

**PATINATZEN HASI  
ZIRENEAN EZ ZUTEN  
ESPERO  
SELEKZIOAREKIN  
JOKATUKO ZUTENIK**



# Emakume helduak errugbian

30 urtetik gorako emakume talde bat eguaztenero elkartzen da Ezoziko Futbol Zelaian, errugbian entrenatzeko

Urte hasieratik, eguaztenero, Soragazteak Rugby Klubak errugbian entrenatzeko aukera ematen die 30 urtetik gorako emakumei, ordubete inguruko saioan, debalde.

Aukera baliatuta, Miren Garcia eta Maider Castro orain dela hiru hilabete hasi ziren errugbia praktikatzen, seme-alaben errugbi entrenamendu orduak aprobetxatuz. Biek ala biek ezusteko polita hartu dute kirol horrekin. "Ez nuen pentsatzen halakoa izango zenik", dio Maiderrek; "ez da oso ezaguna, nik telebistan ez dut inoiz ikusi; gustuko dut", gaineratu du Mirenek.

## Soraluzen eta Arrasaten

Castrorekin eta Garciarekin batera, eguaztenetan, 18:30ean dozena erdi inguruko emakume



Maider C. eta Miren G. futbol zelaian.

talde bat Ezoziko Futbol Zelaian elkartzen da eta umeekin batera beroketa ariketak egin ondoren, eurendako propio prestatutako ariketak egiten dituzte emakumeek, Soragazte Rugby Klubekoen gidaritzapean.

Baloiarekin zein gabe jarduten ikasteko aholkuak entzuten dira futbol zelaian, baina baita barre asko ere. Izan ere, kiroletik zein aisialditik, bietatik ematen die errugbiak andreei. Gainera, Soraluzen entrenatzeaz aparte, Arrasaten, hangoekin entrenatzeko aukera ere badute eta hori ere oso gustuko dute. "Hara irtetea oso polita da, zelai handia dute, talde inklusiboa ere badute... umeak oso gustura egoten dira. Azkenean, hau kirola da, baina baita batak bestearekin harremanak edukitzea ere, oso polita da", azpimarratu du Maiderrek. Mirenek, berriz, asteburuetak partidetan ere parte hartzen du eta "gauzak eta lekuak ezagutzeko ere "balio izan dio esperientziak, "egun-pasa politik" egiteko.

Atzera ere baloi obalutua eskuetan hartu aurretik, bi gazteek herrikide emakumezkoak gonbidatu nahi dituzte errugbian lagun izan daitezten. Diotenez, parte hartzeko "gogoia besterik ez da behar" eta batik bat, "espero ez dutena ikusiko dute. Etorri eta probatu!", diote.

## Boxeo jaialdia antolatu du Sorabox Boxeo Klubak, apirilerako

Apirilaren 22an, boxeo jaialdia izango da Araneko frontoian, Soraboxen eskutik. Bederatzi borrokaldi izango dira, 18:00etan hasita (ate irekiera 17:30ean). Pisaketa, berriz, 15:00etan egingo dute, Gila tabernan.

Ringean, honako borrokak izango dira: Josu Rodriguez (Sorabox)/Alisson Gomez; Yassin

Bouchar (Sorabox)/Cristian Bola; Ibon Munietandikoetxea (Sorabox)/Cesar Estefania; Andoni Kortabarria (Sorabox)/Fabrizio Roca eta Antton Vazquez (Sorabox)/Ohian Goñi.

Sarrerak salgai daude 15 euroan alde aurretik edo 20 euro egunean bertan, kiroldegian edo 676 86 69 22 telefonoan.



Soraboxen borrokaldietako bat.

SORALUZE  
**Abante!**

ehbildu



**Soraluze  
piztera gatoz**



Dolmenen ibilbidearen ataleko ilustrazioa.

## Herriko ondarea online

Herriko historiaren eta kultur ondarearen gaineko informazioa biltzen duen 'Soraluze bizi Soraluze izan' biltegi digitala ikusgai dago iada.

Martxoan argitaratu da SBSI biltegi digitala, herriko historia eta kultur ondarea gaztetxoengana transmititzen laguntzea helburu duen erreminta. Gune hau sortzeko ideia, orain dela zenbait urte sortu zen "Herriak Hezi; Soraluzeko Hezkuntza Proiektua" ekimenaren baitan, batez ere, ikastetxeei begira, irakasle eta ikasleei herriko historia ezagutzeko bidea errazteko asmoz.

Biltegiak lau gairen gaineko informazioa jasotzen du: Armagintza, Deba ibaia, Kultura herrikoia eta Dolmenen ibilbidea. Lehendabiziko hiruen edukiak Antton Alberdi herritarrak prestatu ditu, bere garaian, Udalak emandako beka baten bitartez; laugarrena, aldiz, Arantzadi Zientzia Elkarteak egokitu du.

Ilustrazioak, Eñaut Airtzaguenarenak dira.

### Modu erakargarrian

Biltegian informazio interesgarri asko aurki daiteke oso modu erakargarrian aurkeztua, audio, ilustrazio eta testu arinen bidez. Esaterako, Armagintzaren atalean, herrian jarduera horretara bideratu diren eraikinen zerrenda ageri da. Kultura herrikoia atalean, herriko kanta eta kondaira zaharrak eta lehenagoko jolasen zerrenda. Deba ibaia atalean, ibaiaren historia, leku-izenak eta berba bereziak topatu litezke. Azkenik, Dolmenen ibilbidea atalean mendi-gaineko monumentuen katalogoa kontsulta daiteke, beste eduki askoren artean.

Biltegia [sbsi.soraluze.eus](http://sbsi.soraluze.eus) helbidean dago ikusgai.

## 'Isabela LLeo' erakusketa

Isabela Lleóren eskultura, margolan eta grabatuekin osatutako erakusketa apirilaren 28ra arte bisitatu daiteke Gabolats kaleko Oreka Art galerian (astelehenetik ostiralera 19:00etatik 20:00etara bitartean). Mallorkan bizi den artista madrildarraren *Requiem* bilduma Madrilgo Arco azokan erakutsi berrian dator Soraluzera.

## 'Bar Gloria' nobela aztergai

Maiatzean, Nerea Ibarzabal idazlearen Bar Gloria eleberria izango dute aztergai irakurleen klubean, idazlearekin batera. Markinarraren lehen nobelan familia baten taberna da agertoki nagusia eta, protagonisten bizipenen bidez, lana, heldu egitea, desira eta pertsonen arteko komunikazioa lantzen ditu.

## 'Irakurri eta gozatu' kanpaina

Apirilaren 17an hasi eta maiatzaren 19ra arte, euskarazko literatur lanak ezagutarazi eta herritarrak euskaraz irakurtzera animatzeko kanpaina abiatuko dute liburutegiak, Udalak eta Pil-pileanek. Besteak beste, liburu gomendatuen zerrenda prestatuko dute azken urteko nobedade nagusiek.



# Urtean, 6.000 km. korrika

INFORMATIKA-GARATZAILE KORRIKALARIA

## TESTUA ETA ARGAZKIAK: UBANE MADERA

Lanbidez informatikari-garatzaila den arren, begiak ordenagailutik kenarazten dioten pasio handi bat du Anartz Mugika Ledok: korrika egitea. 2022an, Nairobiraino ailegatzeko beste kilometro egin zituen korrika, haraino 6.340 km. daude lerro zuzenean.

Kopuru hori ez da kasualitatea. 2016tik, Mugikak urtean, 6.000 km. egiteko helburua jarrita dio bere buruari. Orain, berriz, 2029rako 100.000 km. egiteko erronka hartu du (aurtengo apirilerako 66.000 km. eginda izango ditu), "tabernara egunero doanarendako moduan, nik eguneroko ordu eta erdi hori (asteburuetan gehiago) behar dut. Niretzat ez da sakrifizioa. Burua garbitzen dit, eguneko arazoak arindu... nik terapia moduan ikusten dut", dio.

Gaur egun, Mugikak astero, gutxienez, 120 kilometro egiten ditu korrika, gehi, indar ariketak, "sarri esaten da korrika egiten dela forma hartzeko, baina nik uste dut forma hartu behar dela korrika egiteko. Bestela, lesioak datoz. Korrika egitea inpaktu handiko kirola da", esplikatu du.

### Hasieran gustuko ez

Mugikak 17 urterekin ekin zion korrika egiteari. Orduan ez zuen batere gustuko. "Eskubaloian jokatzen nuen eta txarto ibiltzen nintzen, pisu handiagoa nuen eta gehiago kostatzen zitzaidan. Uda batean, pentsatu nuen: *aurten ez naiz horren gaizki ibili*

*behar aurre-denboraldian.*

Entrenatu egin nuen eta nire burua askoz hobeto ikusi nuen. Poliki-poliki hasi nintzen beste korrikalari batzuekin elkartzen eta behin esan zidaten: *ez zara animatzen Behobiara?* Animatu nintzen eta horrela engantxatu nintzen korrika egitera. Lasterketak, berriz, gustuko ditut, baina egiteke egon naiteke. Nire helburua ez da hori, nire helburua da 60 urtez edo gehiagok korrika egiten segitzea, ahal den gehien".

### Open Street Map

Korrikari bai, baina informatikari ere ordu asko ematen dizkio Mugikak, lanbidearengatik zein bestela.

Lanbidez, Madrilgo enpresa batendako dihardu, garatzaile modura, etxetik, "COVIDaren gauza onak", dio.

Afizioz, berriz, makina bat gauza egiten ditu. Azken boladan, Open Street Map-en Soraluzeri buruzko informazio eguneratua sartzen dabil. "Oinarria sartuta zegoen, baina zaharkituta. Ni eguneratzen eta osatzen nabil. Adibidez, skate parkea eta padel pista sartu ditut, Open Street Map-en

## SORALUZERI BURUZKO INFORMAZIO EGUNERATUA SARTZEN ARI DA OPEN STREET MAP APLIKAZIOAN


antzinako U-a eta eraikina agertzen ziren eta. Soraluzeko 37 iturri eta kalistenia parkea ere kokatu ditut. Orain, berriz, gida egiten ari naiz jendea paseatzera animatzeko.

### Open Datako saria

Bestalde, informatikari moduan, sariduna ere bada soraluzetarra. 2014an, aplikazio bat garatu zuen, *Servirace, la guía runner*, lasterketetara joatean, haien kokapenaren, inguruko zerbitzuen eta eguraldiaren berri ematen zuena. Lasterketen balorazioa egiteko ere balekoa zen, "lasterketen Guía Michelin moduko bat izan zen", dio. *Servirace*-rekin Open Datako saria eskuratu zuen 2016an, 2.000 euro; hurrengo lau urteetan, egunero eskaintzen zion dedikazioaren bat aplikazioari, baina, irabazi gehiago eskuratu barik, "marketinean oso txarra naiz", adierazi du; azkenean laga egin zuen. Ez, ordea, gora begira egoteko. Mugika beti dabil ikasten, formatzen, erakusten (Twitterren debalde), asmatzen... Gainera, memoria pribilegiatua dauka. "Memoria oso ona dut. Behin ibilbide berri bat erakutsita, hilabetera joan naiteke eta ibilbidea buruz egin. Nire arazoa da ideia gehiegi eta denbora gutxiegi ditudala". Ideien artean, herriarekin eta osasunarekin lotutako proiektu bat lantzen ari da orain, beraz, seguru laster izango dugula berriro Arantz Mugika Ledoren berri.



Anartz Mugika Ledo bidegorrian korrika, astelehenean.



Open Street Map aplikazioan Soraluzeri buruzko informazioa sartzen.



Open Data saria eskuetan duela.

## ZERBITZUAK

### ZORION AGURRAK



**Oier eta Unax Fulgencio Ucin**  
Otsailaren 21ean 13 urte eta martxoaren 1ean 10 urte. Zorionak bikote, etxeko danen partez!



**Urrategi Gantxegi eta Anna Kovalenko**  
Otsailaren 26an eta 15ean, 62 eta 30 urte. Zorionak, urte askuan irrifar eder horrekin ospatzen jarrai dezagun, etxeko danen partez.



**Amets Uzin**  
Apirilaren 3an 10 urte. 10 urte, txapeldun! Zorionak danon partez!



**Xabier Alberdi Fayanas**  
Martxoaren 9an 4 urte. Zorionak bihotza!!!




**Oihan Larrañaga Agirre**  
Martxoaren 4an 17 urte. Zorionak Oihan!!!



**Ioritz Aizpitarte**  
Apirilaren 2an 40 urte. Zorionak Ioritz!!!



**Maria Jesus Arrizabalaga**  
Apirilaren 17an 78 urte. Zorionak amama!!!



**Ekain Larrañaga Agirre**  
Apirilaren 21ean 19 urte. Zorionak Ekain!!!



**Aitor Agirre**  
Apirilaren 27an 10 urte. Zorionak Aitor!!!

### HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK


**Hildakoak**  
Rosa Vicente Perez  
Nestor Iriondo Jauregi

**Jaiotakoak**  
Aous Iffakh



**bertako**  
Igoailuak | ascensores  
Benetako orotariko zerbitzuak  
**100€-tik/hileko**

**Igoailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzena**  
+2.000 bezeroak gagan dute konfiantza  
943 903 450 bertako.eus



**administradores**  
Centro Vasco de Estudios de Administraciones de Euzkadi  
Euzkadi Pasa, Administradoreak  
Lanetan Berrituta

**ROSA Mª PINTADO**

Etaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

Gure Komunitateko etxe baterako uraren pasabidea zabaldu eta ixten duen giltza hondatuta dago, eta ondorioz, ura galtzen du. Giltz hori portalean dago, kutxa baten barruan. Jakin nahi nuke nori dagokion hori konpontzea.

Ur kontagailu partikularretik nabera doan eta elementu komunetatik pasatzen den hodia puskatu bada, komunitateari dagokio konpontzea. Instalazioek eta ur-bidearen kanalizazioek elementu komun izaera dute, espazio pribatuan sartzen diren arte. Etxebizitzako perimetro pribatuan sartzen diren uean, hodi eta kanalizazio horizontalek elementu pribatu izaera hartzen dute eta ondorioz, etxe-jabe bakoitzari dagokio mantentze-lanak egitea, eta ez komunitateari. Aldiz, hodia etxetik kanpora badago, gunee amankomunean, komunitatearen ardura da.

**ONDORIOA:** Berdin da uraren pasabidearen giltza non dagoen kokatuta. Giltza bera hondatu bada, eta hau etxebizitza pribatutik kanpora badago, komunitatearen ardura da konpontzea.

**GOAR** AHOLKULARI KOLABORATZAILEA  
San Bartolome, 2

## ESKELAK

## III. URTEURRENA

## Octovila Gomez Pintado

'Toli'

2020ko martxoaren 16an hil zen, 74 urte zituela.



Beti egongo zara gure bihotzetan.  
Asko maite zaitugu.

Zure familiaren partez.

## II. URTEURRENA

## Juan Luis Ibarzabal Arrieta

'Juantxo'

2021eko apirilaren 1ean hil zen.



Aitatxo maitea,  
Zu gabe ezer ez da berdin.  
Faltan botatzen ditugu zure  
piano pot-pourriak eta  
gure abesti gogokenak elkarrekin kantatzea.  
Dena oroimenean gelditzen zaigu.

MAITE ZAITUGU.

Zure emaztea, arreba, seme-alabak eta bilobak

## OHARRAK

### Zuzenketa

Otsaileko alean, familia goitizenen erreportajea, Pil-pileanek argitaratu zuen Santos Elizburuk *Bixarra* goitizena aitarengandik jaso zuela baina datu hori ez da zuzena, *Bixarra* goitizena amarengandik jaso zuen (Margarita Muniozguren) eta Molde, berriz, aitarengandik (Junito Elizburu).

**OGASUNAREKIN  
EUSKARAZ  
EGIN DEZAKEZU**

**OGASUNAREKIN EUSKARAZ**

1. ERRENTA KANPAINAN  
2. ORO FREDUA (BULEGOAK)  
3. GIPUZKOATARIAN

2023an 100.000 herritar  
Ogasunarekin euskaraz

**OGASUNAREKIN EUSKARAZ**

1. ERRENTA KANPAINAN  
2. ORO FREDUA (BULEGOAK)  
3. GIPUZKOATARIAN

2023an 100.000 herritar  
Ogasunarekin euskaraz





**MIGUEL  
ALTUNA**  
Lanbide  
Heziketa

**ATEAK ZABALIK**  
Jardunaldiak  
Apirilak 20 / Maiatzak 13

Izena eman:  
[www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus)

## Erdi-Mailako Heziketa zikloak

Administrarritza  
Kudeaketa

Instalazio Elektriko eta  
Automatikoak

Mekanizazioa

## Goi-Mailako Heziketa zikloak

Administrazioa eta  
Finantzak

Zuzendaritzari  
laguntzea

Fabrikazio Mekanikoko  
Diseinua

Mekatronika  
Industrialia

Automatizazioa eta  
Robotika Industrialia

Fabrikazio Mekanikoko  
Produkzioaren Programazioa

Web Aplikazioen  
Garapena

Mantentze-lan  
Elektronikoa

**BERRIA!**

**BERRIA!**

(Bi Ziklo hauek Eskaintza Partzialean egiteko aukera: Zure kualifikazio maila hobetu nahi baduzu eta ohiko ordutegia bete ezin baduzu, heziketa ziklo hauek moduluka egiteko aukera duzu).

## Espezializazio kurtsoak

+ Adimen artifiziala & Big Data

+ Forjaketa Prozesuen Diseinua & Ekoizpena

+ Fabrikazio Adimenduna



## Aukera bat baino gehiago!

- Lanbide Heziketa **DUALa**.
- **ETHAZI** Metodologia.
- Arratsalde Ingeleseko errefortzu klaseak doan.
- Langile eta langabetuentzat ikastaroak.

- Eskaeren araberako formazioa neurritara.
- **Erasmus+**.
- Ikasle eta ikasle-orientzat **lan-poltsa zerbitzua**.
- Orientazio zerbitzua.

[www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA  
Lanbide Heziketa Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Vocacionalista de Formación Profesional

**Fp**  
EUSKADI  
LANBIDE HEZIKETA

Agirrebidea 2, 20570 Bergara-  
TEL.: 943 89 92 70 | 943 89 92 71 | [info@maltuna.eus](mailto:info@maltuna.eus)